

hh
hik hasi

196

20 urte euskal hezkuntza ospatuz



GOLDEN 5 EGITASMOA • XABIER GARAGORRI • 0-3 FORMAZIOA: CRISTINA GOÑI
• ALLENDE SALAZAR GURASO ESKOLA • EUSKAL HEZKUNTZAREN MUSEOA
• ROSELLA SANTAGATA • BEÑAT GAZTELUMENDI

OZEANOA

Itsasoak eta ozeanoak deskubritzeko liburu ikusgarriak



Gure bekoentzi krusko gorrion, portuo utziko dugu espedizio lurre bot egiteko munduan zehar. Itsasoa eta ngazkia ikusiko ditugu aldatsen, urdin zaboletik zuri zabalera. Baina urpean, zenbat ezusteko, dardara eta kalore!



BOLOGNAKO
LIBURU AZOKAN
SARITUAI



AURRETIK



AKOZAKO AZOKAN & BAZKARTEAN



ONDOREN

MARRAZKI LILURAGARRIREN BIDEZ,

AURRETIK, ONDOREN

LIBURUAK BIKAIN IRUDIKATZEN DU
DENBORAREN JOANA.

aurkibidea



8
gaia

GOLDEN 5 EGITASMOA

Ikasle bakoitzaren ahalmenak bere gorenera eramatea du helburu proiektuak eta horretarako ikaslearen gaineko begirada baikorrean oinarritzen da, alderdi positiboetan fokua jartzeak motibazioa handitzen duelako, eta motibazioak, era berean, ikaslearen eraginkortasuna.



16
elkarrizketa

XABIER GARAGORRI

1977an Durangoko ikastolaren zuzendaritza hartu zuenetik, pedagogiaren arloari loturiko ardura postu ugari izan ditu Garagorri ikastolen Elkartearen, EHUn nahiz Eusko Jaurlaritzan. Materialgintzaz, irakasleen formazioaz, kompetentzietan oinarritutako irakaskuntzaz, euskal curriculumaz, Heziberriz eta LOMCEz galdetu diogu, besteak beste.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

GOLDEN 5, ikasle bakoitzaren onena ateratzea xede

16 elkarrizketa

XABIER GARAGORRI, hezkuntza-aholkularia

24 LOMCEri ez! Gure hezkuntza eraiki!

26 0-3 zikloko hezitzaileen formazioa

Cristina Goñi. Baztango haur-eskolaren zuzendaria

30 esperientzia

Gernikako Allende Salazar guraso eskola

32 ekarpena

Euskal Hezkuntzaren Museoa

36 galdeidazue

Zer-nolako garrantzia dauka bideoaren erabilerak irakasleen prestakuntzarako? **Rosella Santagata**

42 Atzeko atetik

Beñat Gaztelumendi. Bertsolaria

Argitaratzailea: **XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Diarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begonia Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez, Matilde Sainz eta Amaia Vazquez. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Graffik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2015-02-20). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



11. Hazi Hezi

haziera eta heziketarako
euskal aldizkaria



Urteko harpidetza
(lau aldizkari)
20 euro

Hik Hasi, hezkuntzari
garrantzia ematen
diogunon **komunitatea**

www.hikhasi.eus

editoriala

martxoa

Arrastoak



Arrastoak behar dituzte ikasleek eta arrastoak behar ditugu irakasleok gure eguneroko jardunari zentzua emateko. Arrastoak behar dituzte haurrek eta arrastoak behar ditugu helduok nondik gatozen eta nor garen jakiteko.

Hala izena du Dejabu Panpin labo-rategiaren azken antzezlanak. Belau-naldi batzuek hurrengoengan duten eraginaren gainean egiten du gogoeta obrak. Izan ere, gure bizitzaren eta gure aurrekoen historiaren arrastoei errepara-tuz jakiten dugu nondik gatozen eta nor garen. Hala eraikitzen dugu gure existentziaren narrazioa.

Arrastoei, aztarnek, ebidentziek... hezkuntzaren arloan ere berebizikoa garrantzia dute. Reggio Emiliako hezkun-tza-esperientzia, esaterako, ezin da ulertu dokumentaziorik gabe, hau da, aztarnarik utzi gabe. Idatziz jasoz, argazkiak ateraz, bideoan grabatuz, muralak osatuz, haurren lanak bilduz... gelan gertatzen denaren gaineko ebidentziak jasotzea da euren jardunaren funtsa, gero horren gainean gogoeta egiteko.

Irakasleen profesioa etengabe hobetzeko xedez, arrastoen analisisan oinarritzen dira Hiprestaldeko ikerlariak ere (EHUko, MUko eta Genevako Unibertsitateko profesionalek osaturiko

taldea da). Gelako jarduna bideoan grabatu, eta ondoren, bideo horren gaineko hausnarketa egiten dute. “Irakasleek gai izan behar dute euren artean irakaskuntzaz hitz egiteko eta euren eguneroko jarduna partekatzeko; ez dute beldurrik izan behar ikasgelako atea zabaltzeko eta elkarri laguntzeko”, hala dio Rosella Santagata Kaliforniako Unibertsitateko irakasleak aldizkari honetako Galdeidazu atalean. Bideoaren erabilerak irakasleen prestakuntzarako zer-nolako garrantzia duen azaltzera etorri zen Arrasatera MUK gonbidatuta. Irakasleena ez ezik, ikasleen jarduna ere dokumentatzearen garrantzia azpimarratzen du, hala ikasleen pentsamendua erregistratu eta ikasle bakoitzaren garapenaren jarraipena egin daitekeelako: “Zer egin dezake irakasle batek ikasleek euren pentsamendua adieraz dezaten eta eskolan pentsamendu horren arrastoak utzi ditzaten aukera gehiago sortzeko?”

Arrastoak utzi, datuak bildu, aztarnak jaso, ebidentzietan oinarritu, bide-

oz grabatu, argazkiak atera, dokumentazio lana egin... Zertarako balio du, baina, horrek guztiak?

Alfredo Hoyuelos NUPeko irakasleak behin baino gehiagotan esana duen moduan, batzuetan memoria txarra izaten dugu, gauzak ahaztu egiten zaizkigu, eta horrexegatik da inportantea dokumentatzea. Baina, beste eze-zen gainera, narrazio bat eraikitzea esan nahi du dokumentatzeak. Ez da nahikoa idatziz jasotzea edo bideoz grabatzea —“Bideoa tresna bat da, inola ere ez helburua”, diosku Santagata—, baizik eta jasotako hori interpretatuz narrazio bat eraiki behar dugu, gure existentziaren narrazioa. Arrastok behar dituzte ikasleek eta arrastoak behar ditugu irakasleok gure eguneroko jardunari —eta bizitzari— zentzua emateko. Arrastoak behar dituzte haurrek eta arrastoak behar ditugu helduok nondik gatozen eta nor garen jakiteko. Arrastoak behar ditu eskola komunitateak ere etengabe hobetzeko eta aurrera egiteko.

hizpide

Nafarroako Parlamentuan 2013-14 ikasturtea aztergai

2013-14 ikasturteari dagokion txostena aurkeztu zuen otsailean Nafarroako Parlamentuan Pedro Gonzalezek, Nafarroako Eskola Kontseiluko presidentek. Hainbat daturen artean, ikasleen kopuruak behera egin duela nabarmendu zuen, eta hurrengo urteetan jorera hori mantendu egingo dela. Horren harira, Nafarroako haur-eskoletan eskaintzen diren tokien %37 hutsik geratzen dela aipatu zuen. Dena dela, horren aurrean oposizioko hainbat indarrek salatu zuten Iruñean euskarazko eskaintzak ez duela eskaria asetzen. Hain zuzen ere, Iruñeko guraso-taldeek eta euskalgintzak agerraldia egin zuten hori salatzeko.

Soldatak kalkulatzean, akatsak sare publikoan

ELA sindikatuak salatu duenez, Eusko Jaurlaritzak hutsegite “larriak eta sistematikoak” egin ditu eskola publikoetako langileen soldatak kalkulatzeko orduan, Hezkuntza Sailaren “sistema informatikoaren gabezien” ondorioz. Diotenez, arazoak izan dira, nagusiki, antzinatasuna kalkulatu eta horren araberako hobariak ebazteko orduan. Ondorioz, hainbat langilek “milaka euro” galdu dituztela uste du ELAK eta arazoa “duela hamar urte baino gehiago” hasi zela salatu du.



Euskararen Legea aldatuta, Nafarroa osoko eskola publikoetan D eredia eskaintzea onartu du Parlamentuak

Euskararen Legea aldatzearen alde bozkatu zuen Nafarroako Parlamentuak joan den otsailaren 10eko bilkuran. Horren ondorioz, besteak beste, euskaraz ikasteko aukera izango dute Nafarroa osoko eskola publikoetako ikasleek. Orain arte zonalde euskaldunean eta zonalde mistoan eskaintzen zen D eredia sare publikoan, eta aurrerantzean zonalde ez-euskalduna deiturikoan ere eskainiko dute. Eskaeraren arabera sortuko dituzte euskarazko lerroak; hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuak erabakiko du gutxienez zenbat haur matrikulatu behar diren D eredian euskarazko lerroa sortu ahal izateko. Dena dela, neurri honek ez du eraginik izango 2015-2016 ikasturtean, aurrematrikulazio kanpaina amaitu eta astebetera onartu baitu parlamentuak Euskararen Legearen aldaketa. Hala ere, epea amaituta egon arren, zenbait udalerritan gurasoak D eredian matrikulatzeko eskaerak egin dituzte; Villatuertan, esaterako, legea aldatu eta astebetera 11 eskaera zituzten jasoak.

NIZEk, Nafarroako Ikastetxeetako Zuzendaritzetako Elkarteak, otsailaren 3an agerraldia egin zuten euskarazko ereduaren garrantziaz ohartarazteko; izan ere, elkarte horretan D eredian diharduten eskola publikoetako ordezkariak biltzen dira. Elkarteko ordezkari Beatriz Casanova eta Zigor Gartziaren esanetan, “hauturik osoena” da D eredia: “Eleaniztasun eraginkorra lortzen du. Bermatzen dugu Nafarroan umeei bi hizkuntzak ikasiko dituztela, eta atzerriko hizkuntza bat ere bai”. Bestalde, Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren babes falta salatu dute.

11.477 ume ari dira D eredian ikasten Nafarroako sare publikoan, 1.128 irakasleekin. Gainera, urtez urte gorantz egiten ari da D eredian matrikulatutako haurren kopurua, Sortzen koordinakundeko nahiz Nafarroako Ikastolen Elkarteko ordezkariak nabarmendu dutenez.

izan da

Iturria:
Berria egunkaria

Heziberri 2020ren curriculum dekretuak aurkeztu ditu Eusko Jaurlaritzak, datorren ikasturtean indarrean jartzeko

Heziberri 2020 proiektuaren curriculum dekretuak aurkeztu ditu otsailean Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak. Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn landuko dituzten edukiak aurkeztu dizkie hezkuntza-eragileei Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak. Jada abiarazi dituzte tramiteak Oinarrizko Hezkuntzako curriculum dekretuak onartzeko. Edonola ere, edukiak datorren ikasturtetik bertatik ezarriko direla iragarri du Uriartek.

Lehen zirriborroak jasotako kritiken aurrean hainbat aldaketa egin du Hezkuntza Sailak Heziberri proiektuan. Hasteko, LOMCEri aipamen gutxiago egiten zaio. Gainera, edukiak ez daude hain zehaztuta, eta, horrenbestez, autonomia handiagoa ematen die eskolei. Gauzak horrela, proiektu propioa egiteko aukera izango dute eskolek, beti ere Hezkuntza Sailaren baimenarekin. Gainera, eskola-kontseiluak araututa geldituko dira.

LOMCEk agintzen dituen amaiera-

ko azterketen inguruan ere badaude aldaketak dekretuan, lehen zirriborroarekin alderatuz gero. Izan ere, azterketa horiei diagnostiko izaera ematea proposatzen du orain aurkezturiko dekretuak. Bestalde, ikasgai batzuk ingelesez ematea proposatzen du Hezkuntza Sailak; dena dela, ikastetxe bakoitzak erabaki ahal izango du zerikasgai eman ingelesez. Atzerriko hizkuntzek bezala, zientzia-gaiek ere ordu gehiago izango dute dekretu berriarekin.

ELA, LAB, CCOO eta Steilas sindikatuek ez datoz bat Hezkuntza Sailak aurkeztutako dekretuarekin; ezta EHIGE, BIHE eta Sarean guraso-elkarteak ere. Hezkuntza-sistemaren beharrei ez erantzutea leporatzen diote, eta Euskal Herriko hezkuntza-sistema propioa garatzeko eskatu diote Uriarteri.

Dena dela, Uriarteren esanetan, orain Hezkuntza Sailaren asmoa Heziberri 2020 proiektuaren azken faseari heltzea da; alegia, EAEko Hezkuntza Legea sortzeko prozesua abiatzea.

Seaskari emandako diru-laguntza, legez kanpoko

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak legez kanpokotzat jo du Gipuzkoako Foru Aldundiak 2013an Seaskari emandako diru-laguntza, eta diru hori berreskuratzeke agindu dio aldundiari. Auzitegiaren ustez, aldundiak ez du ez “zilegitasunik” ez “eskumenik” Ipar Euskal Herriko ikastolak laguntzeko. Hain zuzen ere, Kanboko (Lapurdi) Xalbador ikastolari hiru urtez 600.000 euro ematea adostu zuen aldundiak, eraberriz lanetarako, eta 2013an egin zuen lehen ordainketa. Carlos Urkijok, Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkariak, auzitara jotzeko asmoa agertu zuen albisteak jakin eta biharamunean.

Ikasle Abertzaleak kalera atera dira LOMCEren aurka

Ikasle Abertzaleek deituta, protesta-ekimenak egin zituzten otsailaren 26an Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan, LOMCE lege-erreforma, Eusko Jaurlaritzaren Heziberriren curriculum eta EU2015 unibertsitate-plangintza salatzeko. Erreforma horiek baztertu eta euskal hezkuntza-eredu propioa aldarrikatu zuten. Horren harira, martxoaren 18a bitartean mintegiak antolatu dituzte hainbat herritan, gogoeta egiteko eta LOMCEren nahiz Heziberriren alternatibak lantzeko.



hizpide



‘Auzoko hitzak’ Egiako eskolekin elkarlanean egindako erakusketa inauguratuko du Tabakalerak

Donostiako Tabakalerako hezkuntza arloak eskolekin elkarlanean martxan jarritako lehen proiektu pilotua da *Auzoko hitzak*. Euskara, auzoa eta kultur ekoizpena izan ditu ardatz Tabakalerak Egiako Aitor Ikastolarekin, Maria Reina Eskolarekin eta Mundaiz Ikastetxearekin batera garatutako proiektu honek. “Euskara, ‘Ikasle Euskaldun Eleaniztunak sotzen’ egitasmoaren barruan kokatzen delako; Auzoa, pedagogia eta espazio publikoaren arteko harRemana landu delako hezkuntza komunitatea indartuz; eta Kultur-ekoizpena, hezkuntza prozesuetan kultura ere sortzen ari garelako”.

Nola erabiltzen dut auzoa? Zein toki ditut gustukoak? Zer egiten du toki horietan? Zertarako erabiltzen ditut? Zer esaten dut bertan? Zein hitz erabiltzen ditut? Eta zein hitz entzuten ditut? Galdera horien gaineko gogoetatik abiatuta kontzientzia hartze ariketa egin ondoren, ikasleek zein espazio, erabilera eta gertaera eraldatu nahi dituzten erabaki dute, eta taldetan banatuta, auzoko hainbat lekutan esku hartu dute, espazio bakoitzerako artefakto propio bat sortuz.

Erakusketa martxoaren 6an inauguratuko da, Egiako Kultur etxean 17:00etatik 19:00etara egingo den saio batekin. Horrez gain, hurrengo egunean, martxoaren 7an, familiei zuzenduriko tailerrak egingo dira; eta azkenik, martxoaren 12an, 18:30ean *Verd Dolç Jazz* dokumentala emango da. Informazio gehiagorako www.tabakalera.eu kontsulta daiteke.

Prest da Korrikaren unitate didaktikoa

Korrikaren antolatzaileek Ikastolen Elkartearekin elkarlanean unitate didaktiko bat sortu dute ikasgeletara ere euskararen aldeko mugimendua irits dadin. Adin guztietara moldatu dute 19. Korrikaren unitate didaktikoa eta hamar egunean lantzeko dago prestatua. Maila guztietarako balio duten atalak ditu —kantua, mezuaren inguruan hausnartzea eta Korrika Txikiak antolatzeko proposamena, esaterako—. Adin tarte bakoitzean modu batera egingo dute, zeharkako zenbait helburu landuz. Haur Hezkuntzan, adibidez, ipuinaren protagonisnita bihurtu nahi dituzte ikasleak. Lehen Hezkuntzan, ulermena, ahozkotasuna eta sormena landu nahi dute. Eta gurasoak ere inplikatu nahi dituzte.



izango da

‘II. Herri hezitzailea, eskola herritarra’ jardunaldiak apirilaren 24an eta 25ean



Duela bi urte Francesco Tonucci pedagogoarekin eta “Haurren hiria” egitasmoaren sortzailearekin hasitako bideari jarraipena emateko, eta Hik Hasi-ren 20. urteurrena dela probestuz, *II. Herri hezitzailea, eskola herritarra* jardunaldiak egingo dira apirilaren 24an eta 25ean Donostiako Kursaal jauregian. Ikasle bakoitza bere osotasunean hezten duen, eta gelako dibertsitatea kontuan hartzen duen Finlandiako, Kataluniako eta Euskal Herriko hainbat esperientzia emango dira ezagutzera.

Apirilaren 24ean, heziketa ardatz duen herria gaitzat hartuta, Finlandiako hezkuntza-politika ezagutu ahalko da lehenik Leo Pakhinen eskutik; ondoren, Koldo Saratxaga mintzatuko da parte-hartzeak eta partekatzeak gizarte-ereduan duen garrantziaz; horrez gain, Herri-hezitzailearen sarea, Gaztematika proiektua eta Euskal Herriko beste hainbat esperientzia aurkeztuko dira.

Apirilaren 25ean, berriz, herrira begiratzen duen eskola ardatz izanik, haurra bere osotasunean hezteko Finlandiako sistemak darabiltzan estrategiez mintzatuko da Leo Pakhin; gero, eskolako elkarbizitzaren (dibertsitate funtzionala, kulturantzatasuna, genero aniztasuna...) gainean hitz egingo du Jone Miren Hernandezek eta ikasleen artean harreman onak sustatzeko *Harremonak* programaren berri emango dute Arremanitz taldeko kideek. Eta amaitzeko, Bartzelonako El Martinet eskolaren esperientzia azalduko dute bertako bi irakaslek.

Irakasleei eta hezitzaileei ez ezik, Udaletako zinegotziei eta teknikariei (parte-hartzea, berdintasuna, euskara, gazteria, aniztasuna, kultura, lurralde antolamendua...), gurasoei, eta heziketan interesa duen edonori daude zuzenduta jardunaldiok.

Matrikulazio epea irekita dago jada eta www.bikbasi.eus webgunean eman daiteke izena. Informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi bikbasi@bikbasi.eus helbidera edota deitu 943 371408 telefono zenbakira.

Haur eta gazteen gaiak jorratzeko jardunaldia

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak antolatuta, *Gaztematikari bidea zabaltzen* topaketa egingo da martxoaren 16an eta 17an Irungo Ficoba erakustazokan. Hurrekin, nerabeekin eta gazteekin lanean ari diren profesionaleri eta eragileei dago zuzenduta.

Hezkuntzaz hausnartzeko lan-saioa martxoan

Donostiako Udalak jardunaldia antolatu du gizartearen eraikuntzan hezkuntzak duen garrantziaz gogoeta egiteko. Martxoaren 24ean eta 25ean izango da, San Telmo museoan. Lehen egunean Eusko Legebiltzarreko partaideekin hasiko da jardunaldia, 17:30ean. Hurrengo egunean, 9:00etatik 12:30era sindikatuak ariko dira, eta arratsaldean Hezkuntza Plataformen Topagunea eta Hezkuntza eragileak.

GAIA

GOLDEN 5 egitasmoa

Ikasle bakoitzaren onena ateratzea xede





**Europako herrialdeetan hezkuntza-
ren arloan dauden beharrei, eta
bereziki, Bigarren Hezkuntzako
ikasleek dituzten premiei
erantzuteko jarri zen martxan
Golden 5 programa 2004an.
Ikasgeletako dibertsitatea egoki
kudeatzea da proiektuaren egiteko
nagusia. Ikasle bakoitzaren
ahalmenak bere gorenera
eramatea du helburu eta, horretar-
ako, ikaslearen gaineko begirada
baikorreen oinarritzen da, alderdi
positiboetan fokua jartzeak
motibazioa handitzen duelako, eta
motibazioak, era berean,
ikaslearen eraginkortasuna.**

**Euskal Herrira orain dela hiru
ikasturte heldu zen Golden 5
programa, Berritzeguneetatik
bideratuta, Maria Jose Leraren
laguntzarekin. Uneotan guztira
86 ikastetxe ari dira parte hartzen
egitasmoan.**

G

Alderdi positiboetan begirada jarritz

“Pentsatzen dugun horixe ikusten dugu”. Oinarri horren gainean eraikitzen da Golden 5 proiektuaren atzean dagoen filosofia guztia. Teoria horren arabera, giza garunak pentsatzen duenaren arabera hautematen du errealitatea. Premisa hori ikastetxeetako eguneroko jardunera eramanez gero, hainbat paralelismo egin daitezke. Esate baterako, irakasleak pentsatzen badu ikasle jakin batek arazo akademikoak dituela eta gainera jarrera txarra duela, horixe izango da gelara sartzen denean ikasle horrengan ikusiko duena. Irakaslearen ikuspegi horrekin baina, arazoa handitzeko arriskua egon daiteke, “ikuspegi negatiboek jokabide negatiboak dakartzatelako”. Egoera mota horiei buelta ematea, hau da, negatiboa positibo bilakatzea proposatzen du Golden 5ek eta irakasleari hainbat estrategia eskaintzen dizkio ikasle guztiez era baikorreen pentsatzeko eta pertsona den alderdi positiboak ikusi eta bistartzeko: “Pertsona batek arazo akademikoak dituela eta gainera jarrera txarra duela pentsatzen badugu ere, aldi berean, pentsa dezakegu ikasle horrek ikaskideekin erlazionatzeko gaitasun itzela duela. Beraz, jar dezagun arreta gaitasun positibo horretan eta indartu dezagun ikaslearen alderdi hori”, hala dio Maria Jose Lera Sevillako Unibertsitateko Psikologiako doktoreak eta Golden 5 programaren sortzaileetako batek. Irakasleen begirada aldaketan jartzen du fokua, Golden betaurrekoak jantzeko eskatzen die irakasleei, eta lehen begiratuan erraza ematen badu ere, oso konplexua dela gaineratzen du, “zoritxarrez askoz errazago ikusten ditugulako pertsonen eta gauzen alderdi negatiboak positiboak baino”.

Golden 5ek ikasle bakoitzaren onena ateratzea du xede, bakoitzaren ahalmenak bere gorenera eramatea, eta horretarako ikaslearen gaineko begirada baikorreen oinarritzen da, alderdi posi-

tiboetan fokua jartzeak motibazioa handitzen duelako, eta motibazioak, era berean, ikaslearen eraginkortasuna.

Europa mailan, hezkuntza arloan dauden beharrei, eta bereziki, Bigarren Hezkuntzako ikasleek dituzten premiei erantzuteko jarri zen martxan Golden 5 programa. Proiektuaren inguruko webgune ofizialean (www.golden5.org) zintzilikatuta dauden txostenetan ageri den moduan, Europar Batasuneko herrialde guztiek badituzte hainbat erronka komun hezkuntzari dagokionez. Horietan nagusia aniztasunaren kudeaketa da. Izan ere, gero eta dibertsitate kultural, sozial, ekonomiko, ideologiko... handiagoa dagoenez, ikasgelak geroz eta heterogeneoagoak dira, eta irakasteko formula tradizionalak, usu, ez dute balio.

Ikasgeletako dibertsitatea egoki kudeatzea da beraz, Golde 5 proiektuaren egiteko nagusia. Hartara, irakasleek bi aurpegiko errealitatea izan behar dute kontuan: aniztasunari modu kolektiboan erantzuteko premia duen gizartea batetik; eta ikasle bakoitzaren behar individual akademikoak nahiz sozialak artatzeko gai izango den hezikera bestetik. Xede bikoitz horrekin, eta hezkuntzan ikasleen motibazioa hobetzea ipar hartuta, 2004an abiatu zuten proiektua Europako bost herrialdeetako profesionalek: norvegiarrek, belgikarrek, italiarrek, poloniarrek eta espainiarrek. Hasieratik, Europar Batasunak diruz lagundu zuen.

Euskal Herrira orain dela hiru ikasturte heldu zen Golden 5 programa, Berritzeguneetatik bideratuta, Maria Jose Leraren laguntzarekin. Blanca Kerejeta eta Marisol Uria, Ordiziako eta Donostiako Berritzeguneko aholkulariak, azaldu bezala, elkarbitzita proiektua lantzen ari zirelarik ezagutu zuten Golden 5, gustatu eta ikastetxeei proposatzea erabaki zuten. Hasiera hartan Du-

Golden 5 egitasmoa

rangoko, Lasarte-Oriako eta Ordiziako Berritzeguneetako ikastetxeak hasi ziren egitasmoa euren ikasgeletan txertatzen; uneotan berriz, horiezaz gain, Gipuzkoako ia beste Berritzegune guztiak ere sartu dira proiektuan eta guztira 86 ikastetxe ari dira parte hartzen; has-tapenetan daude batzuk, sakontze-mailan besteak.

Espektatibak eta atribuzioak

Golden 5 programa bi teoria nagusitan oinarritzen da: batetik, espektatiben teorian, eta bestetik, atribuzioen teorian. **Espektatiben teoria**, Pigmalion efektua ere deitzen zaiona, 1978an Rosenthal-ek garatutako teoria da. Haren esanetan, irakasle batek ikasle baten ganako espektatiba altuak baditu, ikasle horrek emaitza akademiko hobekortuko ditu; aldiz, espektatiba baxuak baditu, ikasleak emaitza okerragoak izango ditu. Lerak azpimarratutako eran, teoria horren funtsean dagoen oinarria da “pentsatzen duguna ikusten dugula”. Hala, irakasle batek norbaitenganako espektatiba altuak baldin baditu, beste guztiaren gainetik, haren emaitza onak ikusiko ditu, eta ondorioz, ikasle horren arrakastarako aukera hazi egingo da; haren akatsak, oster, nekezago ikusiko ditu irakasleak eta hortaz, ikasle horrek porrot egiteko duen probabilitatea jaitsi egingo da. “Azken batean, espektatiba positiboa bada, ikasleari laguntza estra bat ematen diogu emaitza onak izan ditzan; espektatiba negatiboekin berriz kontrako gertatzen da eta emaitza txarretara bideratzen dugu ikaslea”. Ikasle baten ganako espektatibak baxuak diren kasuetan, irakasleak pertsona horren alderdi negatiboa besterik ez duela ikusten uste du Lerak, eta gainera, etengabe bere ideia baieztatzen duela ikasle horrek ematen dituen erantzunak edota

dauzkan jarrerak txartzat emanaz, eta ondorioz, egoera nabarmen okertzen dela. Izan ere, ikaslearengandik jasotako erantzunak irakasleari sinestarazten diote egoera horrek ez duela irtenbidetik, ikasle horrekin saiatzea alferrikoa dela.

Espektatiben teoriak dioena kontuan izanik, Golden 5 programak irakasleei esaten die ikasle guztienganako espektatiba altuak eduki behar dituztela. “Badakit zaila dela, baina sikiera, saiatu egin behar dugu, eta batez ere, modu intentzionatuan saiatu behar dugu”. Lerak azalduetako moduan, ikasle batzuk nahi eta nahiez ikusi egiten dira (parte hartzen dutelako, ideia berriak ematen dituztelako, soluzioak proposatzen dituztelako, aldamenekoarekin etengabe hizketan ari delako, etxeko lanak egiten ez dituelako...); beste batzuk, berriz, oharkabean pasatzen dira, haiengan ez du inork arreta jartzen, ikusezinak dira. Kasu horietan, berariaz, irakasleek ikasle horiek dizdira egiten duten arloak bilatu, ikusarazi eta goratu behar dituztela dio Lerak, eta gaineratzen du, garrantzitsua dela modu kontzientean hartzea jarrera hori, ikasle horien alderdi positiboak gurariaz bilatu ezean, inoiz ez direlako aintzat hartuak izango.

Heiderren **atribuzioen teoria** ere aspalditxokoa da, 1958koa hain zuzen. Atribuzioak pertsona bati atxikitzen zaizkion ezaugarriak dira (alferra da, txukuna da, bizkorra da, lotsagabea da, euskara ona du, kalkuluak buruz egiteko erraztasuna du...), eta teoria horren arabera, gizakiak beste pertsona batzuek egindako atribuzioak baieztatu ohi ditu eta gainera atribuzio hori egiazkoa dela ziurtatzeko adibide zehatzak bilatu ohi ditu. Zergatik baina? Erantzun argia ematen du Lerak: “Hirugarren pertsona baten gaineko atribuzio-

ak beste pertsona batekin partekatzen ditugunean, gu bion arteko harremana estutu egiten da eta gizakiok besteekin ondo eramateko joera dugu”. Hori ia modu inkontzientean gertatzen den zerbait dela dio. Bere esanetan, irakasle batek beste irakasle batekin ikasle baten inguruko edota gela baten gaineko atribuzio bat partekatzen duenean —“ikasle hau zeinen alferra den”—, beste irakasleak atribuzio hori baieztatu egingo du eta esango du: —“bai, egia da, nirekin ere gehientxoenetan etxeko lanak egin gabe ekartzen ditu”—. Kasu horietan, ikasle horren ezaugarri negatiboak ugaritu egiten direla erantsen du adituak, eta “txarraren txarrarekin” negatibotasunaren elur bola handituz joaten dela. Aldiz, ikaslearen gaineko atribuzio baikorrak partekatzen badira beste irakasleekin, ikasle horren alderdi positiboak indarra hartuko du eta ikaslea bera loratuz joango da. “Irakasle batek esaten badu: ‘Ikasle honek ekarpen oso interesgarriak egiten ditu eztabaidetan’, besteak esango du: ‘Hala da bai, nirekin ere hobetzen ari da, jarrerara aldatu du eta lehen baino gehiago hitz egin eta aportatzen du’”. Teoria horri jarraituz, atribuzioak partekatu eta baieztatu egiten direla jakinik, Golden



5-ek proposatzen du ikasleen gaineko atribuzio positiboak soilik egitea eta negatiboak alde batera uztea.

Bi teoria horiek kontuan izateaz gain, Golden 5 programak **audientzia efektuaz** ere hitz egiten du. Zer da, baina, audientzia efektua? Atribuzio bat taldean partekatzen bada, atribuzio horretan egiten den balorazioa talde horretan dauden pertsona kopurura iristen da eta haiek ere norbereganatu egiten dute atribuzio hori. Adibide bat jartzen du Lerak: "Ikasle jakin batek ingelesez oso ondo ahoskatzen duela esaten badugu 25 ikasleko gela batean, atribuzio hori 25 aldiz biderkatzen da, audientzia efektua oso boteretsua baita, eta azkenean, audientziak ikasle horren ahoskera onean soilik jarriko du arreta; gaizki ahoskatzen duenean ostera, ez dio inori atentziorik emango, ikaskideek ez baitute uste ikasle horrek oker ahoska dezakeenik ingelesez". Atribuzio negatiboekin ere gauza berbera gertatzen da: "Irakasle batek ikasgela guztiaren aurrean esaten baldin badu, 'ikasle honek ez daki esaldi bat taxuz osatzen', gainontzeko ikasle guztiek, hau da, audientziak atribuzio hori partekatu egingo du eta pentsatuko du ikasle horrek oso gaizki idazten duela. Ikaskideek beraz pentsatzen dutenak eragin zuzena izango du ikasle horrek bere buruaz duen ikuspegiaren ere. Horregatik dit besteen aurrean atribuzio positiboak soilik egitea komeni dela, eta negatiboak norberarentzat gordezea inorekin partekatu gabe".

Edozein atribuzio positibok, ordea, ez du balio. Lerak esplikatutako moduan, atribuzioek ebidentzia errealetan eta sinesgarrietan egon behar dute oinarrituta. "Ingelesez ondo ahoskatzen ez badu, ez dugu bere ahoskera goratuko, bai ordea, akaso, ingeleseko eskolan zer nolako arreta jartzen duen,



Blanca Kerejeta, Maria Jose Lera eta Marisol Uria Donostiako Berritzegunean.

edota ingelesezko abestiak zein gogoz entzuten dituen". Ingelesezko ahoskera ona duela esatea bezalako aipameneekin soilik, haur horren atribuzio positiboak ugalduz joaten direla dio adituak, eta atribuzio positiboak ugaritzen diren heinean, ikaslearen motibazioa ere handitu egiten dela. "Ikasle horrek bere buruarengan duen konfiantza eta autoestimua ere hobetu egiten dira eta eutoefizientzia sentimenduan irabazten du. Positiboak positibora garamatzen ziklo bat irekiko dugu hala. Ikasle hori seguruago sentituko da eta ingeleza ikasteko gogo handiagoa izango du. Ondorioa zera da: ikasleak motibatuz, ikasle horiek erronka akademikoak gainditzea eta arrakasta izatea lortuko dugula".

Kontzientzia hartzea

Golden begiradaz mintzo den arren, begirada aldatetaz hitz egin baino nahiago du kontzientzia hartzeaz solastu Lerak. Izan ere, bere ustez, irakasle gehienek txertatuta dute begirada mota hori eta modu inkontzientean erabiltzen dute euren eguneroko jarduan,

baina soilik ikasle batzuekin, "onak" diren haiekin hain zuzen, "berrezko ditzira" duten horiekin. Horregatik, bere ustez, garrantzitsuena da irakaslea konturatzea gelan dituen ikasle guztietara zabaldu behar duela begirada hori, modu kontzientean: "Oso ondo doazela uste duten edota gogoko dituzten ikasleekin erabili ohi dute dagoeneko irakasleek begirada mota hori. Haiengatik arduratu egiten dira, haien gurasoak kalean ikusiz gero, euren alaba edo semearekin zeinen gustura dauden komentatzen diete, gelan oso ondo tratatzen dituzte ikasle horiek, etab.". Arazoa horiekin ez, baizik eta ikusten ez diren haiekin dagoela erantsen du Lerak. Ikasle "grisak" deitzen diete horiei, oharkabean pasatzen direlako, ez direlako nabarmentzen. Eta are arazo handiago izaten da geletan okerrak egiten dituztelako edota jarra txarra dutelako ikusten diren haiekin. Horiei guztiei ere betaurreko positiboekin erantzun behar zailea dio Lerak. Helburua da ikasle batzuekin dagoeneko existitzen den harreman-erdua ikasle guztietara zabaltzea.

Bost esparrutan lanean

Irakasleari begirada aldaketa eskatzen dio Golden 5ek, negatibotik positibora jauzi egitea, baina proiektua martxan jartzeko horrekin ez da nahikoa. Progama egituratu, sistematizatu eta estrategia zehatzak markatu behar dira, irakasleak euren eguneroko jardunean aldaketak txertatuz joan daitezen. Horrexegatik, Golden 5 programa bost atal nagusik osatzen dute. Funtsean dagoen ideia zera da: arlo horietako bakoitzean arreta jarritz, irakaslearen jardun osoa hobe daitekeela.

Gelaren kudeaketa: Arlo honen xedea da ikasleen kontzentrazio ahalmena sustatzea, ikasgelan giro onean lan egitea, ikasleen ikaskuntza prozesua bultzatzea eta gelan balio positiboak sortzen saiatzea. Teoria horren arabera, irakasleak gai izan behar luke aldi berean hainbat gauza manejatzeko, gelan zer gertatzen ari den jakiteko eta horrekiko interesa agertzeko, ikasleekin komunitzeko eta ikasleen egitura sozialez jabetzeko (zein den taldeko liderra, zein dagoen bakarrik, zein den hobetoen ikusia...). Ikuspegi psikopedagogikoan oinarritzen da arlo hau, eta testuinguruaren organizazioa, taldeen gestiorako estrategia nahiz pertsonen dinamizazioa hartzen ditu kontuan.

Harremanak eraikitzen: Elkarrekiko errespetuan eta parte-hartzean oinarrituz, irakasleen eta ikasleen artean harreman ona eta segurua sortzea da esparru honen jomuga. Lehen atala baino askoz ere indar psikologiko handiagoko eremua da hau Maria Jose Leraren irudiko. Izan ere, gizaki orok du konfiantzan eta afektuan oinarritutako harreman sendoak edukitzeko beharra, baldin eta bere gaitasunak osotasunean garatuko baditu. Atxikimenduaren eta psikologia ebolutiboaren teoriarekin du zerikusia arlo honek. Leraren hitzetan, frogatuta dago irakasleen eta ikasleen artean harreman ona dagoenean, eta erlazio hori segurtasunean, konfiantzan eta afektuan oinarritzen denean, ikasleek erraz egiten dutela aurrera, ziur sentitzen direlako eta badakitelako alboan babesa emango dien pertsona bat dutela, eta

heldu hori ez dagoela hor bere akatsak azaleratzeko, etengabe hobetuz joan dadin laguntza emateko baizik.

Klima soziala: Gela bateko ikasle taldea kohesio-natuta egon dadin landu beharreko eremua da. Psikologia sozialaren teorian dago oinarritua. Lerak adierazitako moduan, teoria horrek dio helburuak elkarrekin erdiesten direnean eta erronkak taldean gainditzen direnean aparteko motibazioa sortzen dela, energia berezia, eta gelaren kohesioa bermatzen dela. Eta gaineratzen du, baldintza horiek guztiak ezinbestekoak direla ikaskideen artean harreman onak, jarduera kooperatiboak, talde-lana, eta elkarrekiko laguntza sustatzeko; eta bazterkeria, bullying edota indarkeria kasuak saihesteko.

Ikaskuntza doitua: Atal guztien artean konplexue-na da Leraren iritziz; berriena ere bada, formakuntzaren psikologiarekin baitu zerikusia. Funtsean, arlo honen egitekoa da irakasleak gelan darabilen metodologia nola aldatu lantzea, ikasle guztien arrakasta erdiesteko. Ikasle guztiei aldi berean gauza bera irakasteko metodologia —ikastetxe askotan erabili ohi dena— etetea eskatzen du, “guztiek gauza berak exijitzea ez baita juxtua”, eta horren ordez, teknika berriak erabiltzea: talde txikikako lana, ikaskuntza kooperatiboa, tutorizazioak...

Familiarekiko harremana: Golden 5eko atalen artean azkena da, baina ez horregatik garrantzi txiki-ena duena. Lerak azaldu bezala, Golden begirada familiarekin partekatzea ezinbestekoa da irakasleak arrakasta izan dezan: “Edozein irakasleak badaki gurasoekin elkarlanean ari denean, gauzak beste era batera joaten direla”. Horrexegatik, irakasleek gomendatzen die ikasleen gainera atribuzio positiboak gurasoekin partekatzeko, hau da, familiarekin harremanetan jartzeko eta euren seme-alabak zeinen ondo ari diren kontatzeko: “Gauza txarrak edota arazoak jakinarazteko soilik gurasoei deitzea ez da zentzuzkoa”.

Bakoitzaren premietara egokituta

Amezketako Zumadi eskolan duela bi ikasturte jarri zuten martxan Golden 5 proiektua, Lasarte-Oriako Berritzegunetik bideratuta, Maria Jose Lera-
ren gidaritzapean. Lehen ikasturtean gela batean soilik hasi ziren program txertatzen, bigarren ikasturtean ziklo osoan ezartzea erabaki zuten.

Golden 5ek zehazten dituen estrategia samurrekin hasi ziren Amezketako eskolan. Bazuten, gainera, ezau-
garri bat alde: Zumadi eskola txikia da eta irakasle guztiek ikasle denak ezagutzen dituzte eta taldeak ere ez dira ikasle askokoak, hortaz, zenbait estrategia —adibidez, ikasleak pasabidean ize-
nez agurtzea, haien eskolaz kanpoko ekintzez informatzea eta arduraztea...— Golden 5 txertatzen hasi aurretik ere erabiltzen zituzten: “Gauza batzuk beti egin izan ditugu, eta horrek aukera eman digu modu pertsonalizu-
tuan strategiak ezartzeko. Ikasle bakoitzak dituen beharren arabera, estrategia bat edo beste aukeratu dugu, ikasle hori pixka bat loratu dadin eta diztira egin dezan”. Nerea Etxezarreta Amezketako eskolako aholkulariaren hitzak dira. Golden 5 martxan jarri dute-
netik modu kontzienteagoan eta sistematizatuagoan lan egiten dutela dio, eta gelan parte-hartzea kostatzen zitzaien ikasle baten kasua jartzen du adibide gisa: “Gelan ikasle guztiei galdera ireki ugari egitea erabaki genuen, erantzunak eskatzea eta ekarpen guztiak ontzat hartzea eta eskertzea. Parte hartzea kostatzen zaion pertsona horren erantzuna une horretarako egokia ez izan arren, gure estrategia da, ekarpena gordetzea eta beste momenturen batean, beste gairen batekin lotuta, hizpide-



Nerea Etxezarreta Amezketako eskolako aholkularia eta Ana Azkona Lasarteko Berritzeguneko, Zumadi eskolan.

ra ateratzea. Orduan, ikasle hori jada ondo sentituko da bere ekarpenak ere zerbaiterako balio izan duelako eta hurrengoan ez zaio horrenbesteko kostako parte hartzea”.

Oharkabean pasatzen ziren ikasle-
ei arreta jartzen hasi ziren Amezketan, haien alderdi positiboak bistaratzen, haien eskolaz kanpokoari garrantzia ematen, etxerako lanen antolaketan laguntzen eta segituan ikusi zuten emaitza: “Harreman pertsonal bat sortzen baduzu ikasle mota horiekin, berarekiko espektatiba onak dituzula sumatzen badu ikasleak, segurtasuna sentitzen badu, beti tratatu onak ematen badizkiozu... berak ere barnean daukan on hori guztia eman nahiko du, horrek pertsonen baitan motibazioa piztearekin du zerikusia eta kasu horietan ikasleei aurpegia ere aldatu egiten zaie: burua tenteago ibiltzen hasten dira, alaiago daude, politago...”. Bere buruarengan konfiantza gutxi zuen ikasle baten kasua gogoratzen du Etxezarretak: “Ikasketetan ere nahiko juxtu zebilen, beti

arrastaka bezala, etxean ere oso espektatiba baxuak zituzten berekiko, etxerako lanak egiten denbora mordoa pasatzen zuen, egonean... Guk konfiantza eskaini genion umeari, berarekiko genituen espektatibak onak zirela ikusarazi genion, segurtasuna eskaini genion, motibatu egiten genuen eta konturatu ginen neurri horiekin ikaslea gelan gustura sentitzen hasi zela. Orduan familiarekin harremanean jarri ginen eta sinetsarazi genion haien umeak bazezakeela eta laguntza apur batekin ondo jarduteko modua zuela. Ondorioz, etxekoek ere haurrarekiko jarrera aldatu egin zuten, eta gurasoekin batera etxerako-lanak kudeatzeko estrategia bat diseinatu genuen. Hala, gurasoekin hasieran astero eta gero hamabostean behin elkartuz, konturatu ginen estrategia funtzionatzen ari zela eta umeak hobera egin zuela. Denok geunden gusturago. Azkenan, ikasle hark ikasturtea ondo amaitu zuen, eta gainera, bere buruarengan konfiantza eta segurtasun dezente irabazi zuen”.

xabier garagorri



ELKARRIZKETA

Eusko Jaurlaritzako hezkuntza-aholkularia

“Hezkuntzaren zentzuaz eta zergatiaz ondo jabetuta dauden irakasleak behar ditugu”



Bizitza osoa darama Xabier Garagorrik (Andoain, 1944) hezkuntza munduari estuki lotuta. 1977an Durangoko ikastolaren zuzendaritza hartu zuenetik, pedagogiaren arloari loturiko ardura postu ugari izan ditu Ikastolen Elkartean, EHU nahiz Eusko Jaurlaritzan. Heziberri 2020 egitasmoaren behin betiko curriculum dekretuak ondu ostean, eranskinak prestatzen ari da uneotan.

Euskal curriculumarekin hasitako bideari jarraituz, konpetentzietan oinarritutako hezkuntza du xede, bi berrikuntza nagusirekin oraingoan: metodologiari dagokionez, gaitasunak praktikan jartzeko integrazio-egoerak sortzea; eta ebaluazioari dagokionez, ohikoak diren matematika, hizkuntzen ulermena edota zientziak ebaluatzeaz gainera, diziplina baitako oinarritzko konpetentzia espezifiko guztiak eta oinarritzko zehar-kompetentziak ere —ikasten eta pentsatzen ikastea, komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, norbera izaten ikastea, eta egiten eta ekiten ikastea— ebaluatzea.

Durangoko ikastolan zuzendari, Ikastolen Elkartean pedagogiako arduradun, ikasmaterialak sortzen eta irakasleak prestatzen, EHU irakasle, Eusko Jaurlaritzan aholkulari... Hezkuntzari hertsiki lotua da zure ibilbidea. Urteen joanak ematen duen talaiatik begiratuta, zer-nolako bilakaera izan du euskal hezkuntzak?

Hezkuntzaren bilakaera gizartearen bilakaerarekin parean doa. Ibilbide oso luzea egin dut hezkuntzaren munduan eta aldaketa asko gertatu dira urte horietan. Luze eta zabal hitz egin daiteke horiez, baina nik guztien artean guzti batzuk soilik nabarmenduko ditut.

Aldaketa garrantzitsuenetariko bat derrigorrezko hezkuntzaren luzapena izan da. 1970ean 14 urtera luzatu zen derrigorrezko eskolaldia eta egoera horrek jarraitu zuen LOGSEra arte, 1990 arte. Beste urrats inportante bat eman zen orduan eta oinarritzko derrigorrezko hezkuntza 16 urtera arte luzatu zen.

Horrekin batera, goi-ikasketen orokortzeaz ere hitz egin behar dela uste dut. Aldaketa benetan sakona gertatu da 70etik gaur egungo egoerara, orain ia edonoren eskura baitago goi-milako ikasketak egitea. Beste alde batetik, batez ere oinarritzko hezkuntzari begiratzeko badiogu, esanguratsua izan da familiaren eremuan gertatu den aldaketa ere —tartean dago emakumeak rol berriak hartu izana—. Orain 40 urte hezkuntza-sisteman nork zein funtzio betetzen zuen oso garbi zegoen. Hezkuntzaren ardura familiak zeukan, eta irakaskuntzarena eskolak. Zentzu horretan aldaketa handia gertatu da azken hamarraldietan, heziketaren erantzukizuna eskolak hartu baitu, familiarekin batera.

Euskararen ezagutzan eta eleaniztasunaren bidean emandako aurrerapausoak ere aipatu beharrekoak dira. 70-80ko urte bitartean ikastolak hasi ziren euskararen gaia orokortzen, baina geroztik baita Eusko Jaurlaritza ere, eta erabaki oso garrantzitsua hartu zen 1982an hezkuntzako Euskararen Legearekin. Zurrumbilo horretan, ikastolak

bakarrik ez, baizik eta eskola publikoa eta kristau eskolak ere sartu ziren. 90etik aurrera berriz, pixkanaka pentsamendu berri bat hasi zen garatzen: euskaldun eleaniztunak eraiki behar genituela eta horrekin ere aurrerapauso inportantea eman zen.

Azkenik, 70-80ko urteetan guretzat erreferentzia Espainia zen, edota Frantzia. Ez zegoen besterik. 90eko urteetan beste aldaketa oso inportante bat gertatu zen —aldaketa hartan LOGSE ere tartean zegoen—: irakaskuntzan, behingoz, ikuspegi pedagogikoa eta ikaskuntzaren ikuspegi eraikitzailea piztu ziren, eta gure begirada zabaldu egin zen. Uneotan, Espainia eta Frantzia hor daude, baina gure ikuspegia irekiagoa da: Europari begira gaude. Hezkuntza-sistema askoz ere era zabalagoan ulertzen dugu, harremanak eta loturak ikusten ditugu beste zenbait herrialdeekin eta konturatzen gara gure etorkizuna ere hor dagoela.

Hezkuntza dena egiteko zegoen aroa bizitza tokatu zaizu, ekintzaile eta eraikitzaile izan zara. Gaur egun nola ikusten duzu euskal hezkuntzaren errealitatea?

Nik hezkuntza mundua ez dut gaizki ikusten. Gauzak beti izaten dira erlatiboak eta beti konparatzen dituzu aldameneko errealitateekin eta euskal gizartearen dauden beste instituzioekin parean jarritz gero, ez dut hezkuntza gaizki ikusten. Hobetzeko ere gauza asko dago, noski. Badakit, adibidez, hezkuntzan sartzen dugun diruaren eta lortzen ditugun emaitzen artean badagoela non hobetu. Hala ere, euskal hezkuntzan aurrerapausoak emateko ibilbidea ez da batere erraza izan, eta horrek lagundu egin digula uste dut. Zailtasunak, azken batean, pizgarri dira; gaitortzean, beti dago lozorroan geratzeko arriskua. Gauzak ondo doazenean, arazorik gabe, ez daukazu akuilurik egoera hori aldatzera bultzatzen zaituenik. Guk, ordea, egiteko franko izan dugu, —elebitasunaren eta eleaniztasunaren inguruan, elkarbizitzaren inguruan...— eta pizgarri izan dira arazo

xabier garagorri

E

“ Hezkuntza sartzan dugun diruaren eta lortzen ditugun emaitzen artean badago non hobetu

”

“ Garbi ikusi dut ikasmaterialgintzarik gabe ez dagoela berrikuntzarik

”

horiek. Are gehiago, esango nuke, hezkuntza-sareen arteko lehiakortasuna ere ez dela batere txarra izan, oro har hartuta, zirikatzaile izan baita, nahiz eta badakidan horrek sortzen dituela lekuan lekuko egonezinak eta gatazkak. Batak besteari akuilu-lana egitearen ondorioz, irakaslea bere gelako elementu aske eta harremanik gabea izatetik, talde-lanera eta ikastetxeko hezkuntza-proiektu komunak garatzera igaro dela esango nuke. Planteamendu osoago bat garatu dute ikastetxeek eta euren hezkuntza-proiektuen bidez gizartera irekiago daude.

Ikastolen Elkarteko kide izanik, zenbait proiektu aitzindaritan gidaritza izan duzu; hala nola Haur Hezkuntzako Haurtxoa eta Lehen Hezkuntzako Axelko, Otsoko eta Beleko materialak sortzen, eleanitz proiektuan, euskal curriculumara eraikitzen, konpetentzietan oinarritutako irakaskuntza proposatzen, Eki ikasmaterialean... Hasierako hutsunea betez joan zarete. Zer-nolako ekarpena izan da euskal hezkuntzarentzat?

Ikasmaterialgintzak prentsa txarra dauka. Badirudi zenbaitek hezkuntza aurrerakoia ikasmaterialgintzaren aurkako zerbaitekin identifikatzen duela. Pentsaera horri jarraiki, ikasmateriala irakaslearen pasibotasuna bultzatzen duen tresna izango litzateke: irakaslea bere mahaian eserita irudikatzen da, egunkaria irakurtzen, egoera kontrolpean duela eta ikasleak koadernoak betetzen. Beste alderdi batetik gainera, ikasmaterialarekin pentsamolde bat ere azalartzen den neurrian, belaunaldi batetik bestera ideologia jakin bat transmititzeko tresna gisa ere hartu izan da ikasmateriala.

Nire ibilbidean eta esperientzian, aldiz, garbi ikusi dut ikasmaterialgintzarik gabe ez dagoela berrikuntzarik. Adibidez, Freineten teoria zenbait praktikara eramatea ezinezkoa izango zatekeen Gordailu ikasmateriala tartean izan ez balitz; edo Piageten pentsamenduak ez ziratekeen paperera eramango eta harekin ez zatekeen planteamendu oso bat egingo Saioka sortu

izan ez balitz. Aintzat hartzekoa da Haurtxoa-rekin Haur Hezkuntzan egin nuen saiakera potoloa ere D-Bereduen bikoiztasun hori hausteko. Bertan jaiotako haurrak eta kanpotik etorritakoak bak batera eskolan jardutea ezinezkoa izango zatekeen Haurtxoa bezalako materialik gabe. Edota eleaniztasun goiztiarraren planteamendua ezinezkoa izango zatekeen “Ready for story” edo “Hocus and eta Lotus”, “Story projects”, “Subject projects” edota antzeko materialen laguntzarik gabe. Eta momentu honetan konpetentzietan oinarritutako hezkuntza hankamotz egongo litzateke Eki proiektu antzeko bat ez balego. Ikasmaterialgintza da berrikuntzarako ezinbesteko tresna.

Nola erabili behar dira, baina, material horiek?

Ikasmaterialak irakasleen eskuetan jartzen ditugun tresnak dira, eta hori ulertzea oso garrantzitsua da. Eskola bakoitzak eta irakasle bakoitzak bere ikasmaterialak sortu behar dituela dioten pentsamendu bat ere bada, eta hori egitea txapela erantzeko modukoa da. Baina ikasmaterialak sortzea ez da txantxetako gauza. Denbora asko eskatzen du, ahalegin eta gaitasun handia eskatzen ditu. Nik askotan esaten dut, ez dagoela unibertsitate hoberik ikasmaterialak sortzea baino.

Sukaldari onaren adibidea erabili ohi dut sarri. Sukaldari ona izateko zer behar da? Goizeko hiruretan jaiki zintezke eta arrantzara joan; zure arrainak harrapatzen dituzu eta fresko-fresko ekartzen dituzu; gainera, zure baratza daukazu eta letxugak eta porruak landatzen dituzu. Zoragarri! Baina sukaldari batek, batez ere, azokara joan eta produktu onak aukeratzen jakin behar du, eta kontziente izan behar du zergatik hartzen duen produktu bat eta ez bestea. Hortaz, irakasle bat arrantzara ateratzen bada eta bere baratzea badauka, bada, oso ondo, baina irakasle bati ezin diezaiokegu hori eskatu. Merkatuak joan eta zein den liburu egokia eta zein ez identifikatzeko, eta horiek nola erabili behar dituen jakiteko gaita-

suna eskatu behar zaio, hau da, ziurtatu behar du material hori ez duela erabilteagatik erabiltzen, baizik eta bere galbahetik pasata, zentzuz eta koherentziaz jarduten duela.

Beraz, ikasmateriala lanabesa da eta gainera ezin da ulertu parean irakaslearen prestakuntza jarri gabe, eta ebaluazio-plan bat diseinatu gabe. Ikasmaterialak elementu bizia izan behar du. Ezin da izan 10 urterako, baizik eta irakasleen esperientzia eta ekarpenak kontuan harturik, etengabe berritzen joango den ikasmateriala sortu behar da. Badakit hau argialetxe handientzat ezinezkoa dela, baina Euskal Herrian gaudenontzat, planteamendu hori posible da eta egiten da.

Euskararen irakaskuntzan ikastolak aitzindari izan ziren. Eskarmentu hartatik abiatuta, Eleanitz programa jarri zenuten martxan. Zein emaitza eman ditu proiektuak?

Haurtxoa ikasmaterialarekin izandako esperientziatik nentorren ni. Oso harrera ona izan zuen hark, eta apur bat sendotu zenean, euskararen irakaskuntzarekin batera beste hizkuntza batzuk irakasteko planteamendua egiten hasi ginen. 90eko urteetan geunden, Europara oso zabalik. Ordurako “Euro-Regio” moduko bat ere bazegoela ikusten zen, eta Euskal Herriak ere Akitaniarekin batera, bide horretatik jo beharra zeukala. Bazegoen, gainera, horretarako sakoneko arrazoi bat: iruditzen zitzaidan euskara bizirik mantenduko zela, eta bere esparruan tokia izango zuela euskaldunok eleaniztun izan gitezkeen neurrian; bestela, gurea bezalako hizkuntza batek ez zeukan ez gaztelaniaren ondoan, ez frantsesaren ondoan inolako ibilbiderik. Hortaz, euskaldun eleaniztunak sortzea ezinbesteko elementu bilakatu zen.

Hasiera batean frantsesa eta ingelesa, biak eskaini genituen, iruditzen zitzaigulako errazena eta bideragarriena frantsesa zela, baina ikastetxe guztiek ingelesaren aldeko hautua egin zuten. Atzerriko hizkuntzaz hizketan hasteak kezka eragin zuen ikastolen artean: bi



hizkuntzarekin aurrera egiteko nahikoa lanekin genbiltzanez, gela barruan euskararen kontrako etsaia sartuko genuela uste zuten askok. Eztabaida sakona izan zen, eta erabaki genuen, bide berri hartako prozesu guztia eta emaitza oro ebaluatu egingo genituela, eta euskararentzat kaltean ari ginela ikusiz gero, bizkor beste bide bat hartuko genuela. Eta berehala ebaluazio-planteamendu oso serioa jarri genuen martxan.

Plan bat egin genuen, hasi 4 urtetik eta 16 urte bitartean, urtero ebaluazioa egiten hasi ginen. Euskara, gaztelania, ingelesa, adimena eta hizkuntzekiko jarrerak ebaluatzen genituen. Eta urtez urte emaitzak neurtuz, konturatu ginen atzerriko hizkuntza bat sartzeak ez zela kalterik egiten ez euskarari eta ezta gaztelaniari ere, are gehiago, ahozko-tasunari erreparatuta onura ere bai. Adimenean eta jarreretan ere ez zuen eraginik izan. Bestetik, berriz, atzerriko lehen hizkuntzari dagokionez, hobekuntza oso nabarmena nabaritu genuen. Kanpoko ebaluazioa egin genuen Trinity College-ren bitartez, eta zenbakitan emaitzak emanda, gutxienez %25eko hobekuntza lortu genuela esan daiteke.

Irakasleen formazioan ibili zara Ikastolen Elkartearen eta hezkuntzako profesionalak

prestatzen unibertsitatean. Nolakoa behar du izan irakasleak? Zein kompetentzia eduki behar lituzke?

Kompetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegitik, era sinplean adierazita, esango nuke ikaslearen irteera profila lortzeko gai diren irakasleak behar ditugula. Baina nire esperientzian oinarrituz, hezkuntzaren zentzuaz eta zergatiak ondo jabetuta dauden irakasleak behar ditugula iruditzen zait. Eta zentzu horretan, irakaskuntzan hutsunea dagoela esango nuke. Izan ere, irakasleek, sarri, euren eguneroko jardunerako formula nahi izaten dute: “esadazu nola jokatu behar dudun”. Horrexegatik diot, irakasleak egunero egiten duen horri zentzua emateko gai izan behar duela, bere lanaren zergatiak arrazoiak emateko gauza. Hezkuntzaren funtzioaz eta pertsonen osotasunaz jabetzen diren hezitzaileak behar ditugu; batetik, ikasleen emaitzak hobekuntza izango liratekeelako, eta bestetik, irakasleak eurak ere zoriontsuago izango liratekeelako. Zentzuz ari garenean gauzak beste era batera ikusten ditugu. Gehiago inplikatzeko gara eta minak handiagoak izaten dira, baina baita pozak ere. Eta horrek merezi du.

Gaur egungo irakasleak behar duen beste ezaugarri bat ere aipatu nahiko nuke: oinarritzko zehar-kompetentziak —ikasten eta pentsatzen ikasi,

xabier garagorri

E

**“ Irakasleak
ziurtatu behar du
ikasmateriala ez duela
erabiltzeagatik erabiltzen,
baizik eta bere galbahetik
pasata, zentzuz eta
koherentziaz jarduten
duela ”**

**“ Oinarrizko
konpetentzia guztiak
ebalatu ezean; soilik
hizkuntzaren ulermena,
matematika eta zientziak
ebalatuaz gero, oso
mugatua geratzen da gure
planteamentua ”**

komunikatzen ikasi, elkarrekin bizi-zen ikasi, norbera izaten ikasi eta egiten eta ekiten ikasi— bereganatuta eduki behar ditu. Horien autoerregulazioa egina eduki behar du, eta ez hori bakarrik, horietako bakoitza ikasarloetako konpetentzia espezifikoen bidez lantzeko prozedurak eta jarrerak ere izan behar ditu.

Azkenik, nire esperientziak erakusten dit, pozik, gogoz eta ilusioz beterik ari den irakaslea dela onena. Ikasleek segituan antzematen dute zein irakasle ari den bere lanbidea pozik eta pasioz betetzen. Azken gaitasun hau duen irakasleak, aurrez aipatutako ezaugarri guztiak ere hor nonbait ibiliko ditu.

Ikaslearen irteera profila lortzeko gai diren irakasleak behar ditugula aipatu duzu. Zeintzuk dira, ordea, ikasle batek derrigorrezko hezkuntza bukatzean eduki behar dituen oinarrizko gaitasunak?

Galdera horri erantzun aurretik, oinarrizko hezkuntzaren funtzioa ondo definitzea komeni da. Gero eta garbiago dago oinarrizko hezkuntzaren egitekoa bizitza osorako oinarriak jartzea dela. Azken batean, bizitza osoan egin beharreko ibilbide luze horretarako ikasleak ondo prestatu behar du, entrenamendu sendoak egin behar ditu eta gaitasun horiekin guztiekin motxila ondo beteta eraman behar du, ibilbide luze hori ahalik eta baldintza onenetan egin dezan.

Horretarako oinarrizko konpetentziak garatu behar ditu ikasleak. Oinarrizko konpetentziez ari garenean, bizitzarako ezinbestekoak diren konpetentziez ari gara. Bizitza, maiz, lehiakortasun ikuspegi neoliberal batetik begiratuta ulertzen da, produkziara begirako batetik. Baina kasu honetan ez gara horretaz ari, bizitza pertsonalerako, bizitza sozialerako, bizitza akademikorako eta bizitza laboralerako beharrezkoak diren konpetentziez baizik.

Zeintzuk dira ezinbestean garatu beharreko konpetentzia horiek?

Konpetentzia horiek hautatzeko bi iturrietako ekarpenetan oinarritu gara:

UNESCOren proposamena eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren gomendioa.

Delors-en gidaritzapean egindako UNESCOren planteamenduari jarriki, hezkuntzaren lau zutabe zehazten dira: pentsatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, izaten ikastea eta ekiten ikastea. Ardatz modura lau elementu horiek hartu genituen guk Euskal Curriculumean eta beste bat erantsi genien: komunikatzen ikasteko gaitasuna, hain zuzen.

Euskal Autonomi Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak finkatzen duen 2007ko Dekretuan, UNESCOren eta Europako Parlamentuaren proposamenak uztartzen dira. Europako erreferentzian zortzi oinarrizko konpetentzia aipatzen dira. Oinarrizko konpetentzia horien artean, batzuk UNESCOren proposamenean jasotzen diren zehar-konpetentziak dira, hau da, ez dute eduki propiorik eta ezin dira bere baitan ebaluatu. Adibidez, “ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna” ezin duzu bere baitan ebaluatu, baldin eta egoera edo eduki jakin bati ez badiozu atxikitzen konpetentzia hori. Izan ere, zehar-konpetentziak — ikasten eta pentsatzen ikasi, komunikatzen ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, norbera izaten ikasi eta egiten eta ekiten ikasi— ikastarlo guztietan eta bizitzako egoera guztiei lotuta jorra daitezke. Beste konpetentzia batzuk, aldiz, ikastarlo jakin batzuekin lotzen dira.

Aldaketa esanguratsu baten aurrean jartzen gaitu horrek: “Irakasle, zuk zure ikastarloa uztartu behar duzu oinarrizko zehar-konpetentziekin”; eta oinarrizko zehar-konpetentziak garatuko dira, baldin eta irakasleak bi norabideak kontuan izaten baditu: “Zehar-konpetentziak beharrezkoak dituzu zure ikastarloa lantzeko, eta zure ikastarloa lantzea ezinbestekoa da oinarrizko zehar-konpetentzia hauek jorratzeko”.

Baina irakasleak azken notak jartzen dituen ikastarloetan gauzatzen diren konpetentzia espezifikoak ebaluatzen

ditu, eta ez zehar-kompetentziak. Hau da, eskolan egindako horri zenbaki bat jartzen zaionean, “matematikan” 5 lortu ahal du ikasle batek, baina oraingo behintzat “elkarrekin bizitzeko gaitasuna”, adibidez, ez da neurri berean neurtzen.

Kompetenzietan egituratutako irakaskuntzarekin aurrera egin nahi bada, oinarriko kompetentzia guztiak ebaluatu beharko dira. Zehar-kompetentzietan dagokienez, esaterako, ikasten eta pentsatzen ikastearekin eta komunikazioarekin zerikusia duten kompetentziak errazagoak dira ebaluatzen, elkarrekin bizitzeko gai izatearekin, norbera izatearekin edo ekintzaitzarekin zerikusia duten kompetentziak ebaluatzea baino, baina horrek ez du esan nahi ebaluatu behar ez direnik.

Oinarriko kompetentzi guztiak ebaluatu ezean, soilik hizkuntzaren ulermena, matematika eta zientziak ebaluatuz gero —PISA-n egiten denaren antzera— oso mugatua geratzen da gure planteamendua. Horrexegatik, uztarketa bat egin behar dugu kanpo ebaluazioaren eta barne ebaluazioaren artean. Izan ere, kanpo ebaluazioan ezin dira oinarriko kompetentzia guztiak ebaluatu. Ez diruz, ez denboraz, eta ez posibilitatez. Kanpo ebaluazioak ezin du elkarrekin bizitzeko edo norbera izateko edo ekintzaitzarako kompetentziak ebaluatu. Horiek behaketaren bidez aztertu behar dira eta ikaste-txearen barnean ebaluatu. Baina horrek ez du esan nahi besteek baino inportantzia txikiagoa dutenik, eta ebaluatu behar ez direnik.

Irakasleok argi eduki behar dugu ikasleak bizitzarako prestatzen ari gara, eta ez soilik ikuspegi akademikoa lantzen. Bizitzarako prestatuta dagoen profesional onak, batetik bere ezagutza esparruan —ingeniaritza, edo medikuntza edo igeltserotza...— ezagutza sakona beharko du, baina profesional ona izango da eta ibilbide oparora egingo du baldin eta ondo pentsatzen baldin badaki, ondo komunikatzen baldin badaki, elkarrekin bizitzen eta elkarrekin aritzeko gai bada, inizatiba

baldin badauka eta autoerregulazio prozesuak bideratzen baldin baditu pertsona osoa izateko.

Zentzu horretan irakaslearen egitekoa ez litzateke soilik bere “gaia” irakastea, baizik eta gainontzeko irakasleekin batera, haurrek zehar-kompetentziak eskura ditzaten lan egitea (ikasten eta pentsatzen ikasi, komunikatzen ikasi, norbera izaten ikasi, egiten eta ekiten ikasi, elkarrekin bizitzen ikastea). Baina nola lor daiteke hori? Zein metodologia, modu, bitarteko ditu horretarako eskolak eta irakasleak?

Batetik, zehar-kompetentziak eta kompetentzia espezifikokoak uztartu behar ditu irakasleak. Besterik beriz, metodologiari dagokionez, oso inportantea da —eta hau da elementu berria gure planteamenduan— integrazio-egoerak sortzea, hau da, pertsona bat kompetentea da, definizioz, baliabideak —ezagutzak, prozedurak eta jarrerak— era integratuan erabiltzeko gai baldin bada arazo bati irtenbidea emateko.

Alde horretatik, norbaitek esaten badu kompetentzien ikuspegiak ez die la garrantzirik ematen ikastarloan edukiei, hori ez da egia. Kompetentea izateko kontzeptuzko ezagutzak, prozedurak eta jarrerak behar dira, baina horrekin bakarrik ez da nahikoa. Kompetente izateko, ezagutza, prozedura eta jarrera horiek momentu jakin bateko egoerak eskatzen duenaren arabera erabiltzen jakin behar da, mobilizatzen eta testuingurura egokituz erantzun egoki bat ematen. Eta horretan ere ikasi egin behar da. Baina horretarako egoera esanguratsuak sortu behar dira. Gure planteamenduan, metodologiari dagokionez, oso berrikuntza inportantea da hori, egoerak sortzea, hain zuzen.

Metodologiaren alderditik, kompetenzietan oinarritutako hezkuntzak zer eranstean dio orain artekoari?

Irakasleak egoerak sortu beharko ditu ikasleek ikasi dituzten ezagutzak modu integratuan praktikan jarri ahal izateko. Hori da berrikuntza nagusia. Kompetentzia hori ebaluatzeko ikaslea

ezagutzak, prozedurak eta jarrerak egoera jakin horretan erabiltzeko gai ote den neurtu beharko da. Norabide horretan, proiektu bidezko lanketarekin bide bat egin dago, dagoeneko. Baina oraingoan apur bat urrunago heldu nahi dugu. Horrexegatik ez du edozein egoera edo kasu edo proiektu proposatzeak balioko, baizik eta irakasleari hausnarketa egiteko eskatuko zaio: Zeintzuk dira ikasleari proposatu beharreko egoera esanguratsu horiek, ikaslea bizitzarako prestatu dadin? Adibidez, matematikaren kasuan, zeintzuk dira bizitzeko egoerei aurre egiteko prestatzeko baliagarri diren testuinguruak? Horrek zentzua ematen dio ikas-kuntzari, ardatza ez baita ezagutzaren trinkotasuna mantentzea, baizik eta ezagutza horrek bizitzarako prestatu egon dadin ikasleari zertarako balio dion hausnartzea.

Aldaketa horiek zein testuingurutan ari zarete planteatzen, Heziberri 2020ren curriculum dekretuetan?

Bai, baina ez da gauza berria ere. Lan hau 2007tik ari gara egiten eta ez da inolako etena orain arteko norabidean. Garapen logiko bat dauka honek. Adibidez, euskal curriculumean oinarriko zehar-kompetentzien planteamendua egiten zen, baina egoeraren planteamendurik ez zegoen. Hor aurrera-pauso bat egin da, beti ari garelako ikasten, baina orain artekoaren eboluzio logikoa da.

Kompetenzietan oinarritutako curriculumak erabat orokortu da. Ia ikastetxe guztietara eta hezkuntzako maila guztietara hedatu da, behintzat idatziz. Urte batzuk badaramatzate euskal ikastetxeek horrela funtzionatzen. Praktikan, eguneroko jardunean, zein aldaketa ekarri ditu horrek? Sorburuan xedea, teoriaren eta praktikaren arteko arrakala txikitzea zen, lortu da?

Ari da, baina pixkanaka. Aldaketak ez dira gauzetik goizera egiten. Hasteko sinetsi egin behar duzu aldaketa hori hoberako dela. Gainera, baditugu ohi-tura batzuk, eta gauzek funtzionatzen

xabier garagorri

E

“ Nik ez dut aparteko grinarik ikusten euskal curriculumaren gaiari sakonetik heltzeko ”

“ LOMCErena baino egoera txarragoak ezagutu ditugu lehen ere, eta jakin dugu gure nortasuna mantentzen eta aurrera egiten, eta oraingoan ere asmatuko dugu ”

badigute —eta batez ere adin batetik aurrera—, zertarako aldatu? Hortaz, sinetsi egin behar duzu hori zuretzako mesedegarria izango dela, ikasleen onerako izango dela, bizitzarako prestatzeko balioko diela... Eta gauza bat da zuk horretan sinestea, baina beste gauza bat da aldaketa hori bideratzeko gauza izatea, sinestetik ahal izatera tar-te bat baitago. Aldaketek balioko badute, pixkanaka egin behar dira, presak, urgentziak eta estutasunak alde batera utzita.

Euskal curriculumarenean, hein batean, kompetentzietan oinarritua da. Bere diseinuan bete-betean parte hartu zenuen. Euskal Herrian bizi garenok curriculumaren bidez finkatuta utz dezakegu zer den estatu eta administrazioaren gainera elkarrekin duguna eta zein den elkarrekin eraiki nahi dugun kultur ibilbidea. Lortu dugu? Espainiako eta Frantziako curriculumek uzten dute horretan?

Espainia, Frantzia, euskal curriculumarenean... Historiak erakusten du eta ebidentziak hor daude, Frantziak eta Espainiak ez dutela euskal curriculumarenean landuko eta garatuko. Beste ebidentzi bat da curriculumaren % 80 edo gehiago, gurean, Espainian, Frantzian, Italian, Bolivian eta besteetan berbera dela. Azken batean, mendebaldeko zibilizazio batean bizi gara eta horrek eragina du. Euskal curriculumaren saiakera hor kokatu behar da: Herri bat gara bi estatutan banatuta, hiru administrazio-tan; testuinguru horretan, zer daukagu eta eduki nahi dugu komunean Euskal Herrian bizi garenok? Zer da Euskal Herrian bizi behar duen pertsona kulturetatik Euskal Herriaz eta munduaz ezagutu behar duena? Galdera horiei erantzutea izan zen lehen egitekoa, jakinik Espainiak eta Frantziak ez zutela hori inoiz egingo.

Zein ibilbide egin du euskal curriculumak eta gaur egungo euskal ikastetxeetako praktikan zein toki du?

Politikoki asko erabili da euskal curriculumaren gaia, baina praktikan

kontuak bestelakoak dira. Gauza asko egin ditugu, eta ikastetxeetan curriculumeko zenbait proposamenek aurrerabidea izan dute, baina oro har, nik ez dut aparteko grinarik ikusten euskal curriculumaren gaiari sakonetik heltzeko, ez Euskal Autonomia Erkidegokan, ez Nafarroan eta ez Iparraldean; ez instituzioen aldetik, ez ikastetxeetatik, ez zuzendaritzen partetik, eta ezta irakasleei dagokienez ere. Eta kasu honetan ez du balio Espainiari eta Frantziari errua botatzeak. Gure arazoa da. Zentzueraino lantzen da gure ikastetxeetan —eta denak sartzen ditut barnean, salbuespenik gabe— euskal curriculumaren proposamena? Gainera, euskal curriculumarenean euskal hezkuntzaren gaikoetako bat da. Izan ere, uneotan kompetentzien gaiarekin ari gara, baina kulturaren transmisioa ere oso elementu inportantea da komunitatearen garapenerako. Lekuan lekuko bere berezitasunak mantenduz —euskal kultura anitza delako— denok batzen gaituen GU hori osatzeko bitartekoak eskaintzeko ahalegina egin da euskal curriculumarekin, baina nik ez dut uste gai horri behar bezainbeste heltzen zaionik.

Euskal Herrian Frantziatik nahiz Espainiatik zehaztua datorrena errespetatuz bide paraleloa egitea izan da azken urteetako estrategia. Heziberri 2020k ere bide berean jarraitzen duela dirudi. Curriculum dekretuarekin erdibideko aukera egin dela esan daiteke: batetik, LOMCEren oinarria errespetatzen da dekretuetan, eta bestetik euskal dimentsioa ere txertatzen da, Euskal Herriko edukiekin. Baina zein toki hartuko dute euskal edukiek? LOMCEren edukiak irakasteak tarterik utziko al du euskal edukiek lantzeko?

Heziberri 2020ren ardatza ez da LOMCE, ezta urrutitik ere. Orain arte egindako ibilbidearen jarraipenerako eta hobekuntzarako proposamena da. Eta metatu dugun kultura pedagogikoa —eta badaukagu nolabaiteko kultura pedagogiko bat, euskal curriculumarekin, elebitasunaren eta eleaniztasunaren lanketarekin, inklusio jorrazteko

planteamendurekin, aniztasunaren inguruan egindako lan guztiarekin, etab.— hobetu eta jarraitu nahi da, kompetentzietan oinarritutako hezkuntza ardatz harturik. Ez dauka zerikusirik Heziberrin zehazten den ikaslearen irteera profilak LOMCEkoarekin. Berdin gertatzen da batean eta bestean zerrendatzen diren helburuekin nahiz horiek lortzeko egiten den metodologia planteamendurekin ere.

Hainbat eragileren kritikak jaso ditu eta sindikatuek salatu dute LOMCE “euskal erara” aplikatzeko modua dela.

Benoa, ez da horrenbesterako izan. Gauza bat da komunikabideetan agertzen dena, eta beste bat guk eragileekin aurrez aurre hitz egiten duguna. Joko politikoa eta talde bakoitzaren interesen eta protagonismoen jokoa ere badago. Oro har, kritika gehienak ekarpen bihurtu dira. Aurrerapausu inportantea izan da hori.

LOMCE oztopo bat da, baina nik esango nuke gaintitu beharreko oztopo bat dela. Herri honek aurka joaten oso ondo daki, baina eraikitzen ere bai. Egoera zailen aurrean ere jakin izan du oztopoak gaintitzen.

Ikaslearen irteera profila zein den baldin badakigu, hori ondo zehaztuta badugu, gure planteamenduren muina badaukagu. Zer nolako ikasleak nahi ditugun guk definitzen baldin badugu, hori izango da gure ardatza. Gero, horretara iristeko era bateko edo besteko estrategiak erabili ahalko ditugu. LOMCE bezalako egoerak ezagutu ditugu lehen ere, eta txarragoak ere bai, eta jakin dugu gure nortasuna mantentzen eta aurrera egiten, eta oraingoan ere asmatuko dugu.

Zeintzuk izango dira hurrengo urratsak curriculumari dagokionez?

Hasierako curriculum dekretuen zirriborroetan aldaketa asko egon da zorionez. Ekarpen izugarri egin dituzte eragileek eta saiatu gara horiek guztiak txertatzen dekretuetan eta curriculumean. Bigarren bertsioa ondu berri dugu eta eragileei pasa diegu, eta uneotan



[otsailaren 5ean egindako elkarrizketa da] eragile desberdinekin bilerak egiten ari gara. Soluzio-bideak bilatzen ahaleginak egin ditugu eta nik uste dut aurrera egingo duela.

Urte honen amaiera aldera egingo diren Espainiako hauteskondeen ondotik LOMCE bertan behera geratzen bada, zer gertatuko da Heziberri 2020rekin eta curriculum dekretuarekin?

Aurrera jarraituko dute, noski. LOMCE bertan behera geratuta ere Heziberri aurrera egingo luke. Gure xedea da, baldintza batean zein bestean, ontzen ari garen curriculum dekretuak baliagarriak izatea, horregatik egin dugu LOMCEren oinarritzko araudia saiesteko ahalegina, horren kontra joatea, paretaren kontra aritzea litzatekeelako. Gustatu ala ez, oinarritzko araudia hor dago eta horrekin jokatzeko jakin behar da, horiek direlako ikaslearen ziurtasun juridikoa bermatzen duten baldintzak eta hori delako oraingo gure herriaren errealitatea. Eta orain arte jakin dugu gurea mantenduz malgutasunez jokatzeko.

Curriculumaren ondoren, azken urratsa, Hezkuntza Legea egitea izango dela zehazten da Heziberri egitasmoan. Nolako garrantzia aitortzen diozue Hezkuntza Legeari? Eta zein aldaketa ekarriko lituzke hezkuntza-sistemara?

Nire ustez elementu inportantea litzateke hori. Azken batean gure hezkuntza-sisteman erdi eta erdi gara. Batzuen titularrak administrazioa da, hau da, administrazioaren eskolak dira, eta beste batzuk berriz, administrazioak itunpean dituen gizarte zibileko ikastetxeak. Administrazioaren eskolek badute bere legea, baina itunpeko eskolek ez dute babes legalik. Iruditzen zait ona litzatekeela hezkuntza lege bat egitea, zeinetan eskola guztiak babesa izango luketen. Ez da erraza izango, baina gauza zailagoak ere egin ditugu. Kasu horretan, “publikotasun” kontzeptuak hausnarketa bat beharko du, “ekitate” kontzeptuak hausnarketa bat beharko du, “inklusio” kontzeptuak ere hausnarketa bat beharko du, hau da, oinarritzko hausnarketa sendoa beharko da, legeak euskarri onak izan ditzan. Heziberri 2020ko planteamendua aurrera badoa, oinarri sendo bat izango litzateke Hezkuntza Legearako.

Aurrera begira, zein erronka nagusi ikusten dituzu euskal hezkuntzan?

Nire ustez momentu honetan erronka nagusia da zein izango den kompetentzien planteamendua aurrera eramateko plangintza. Ibilbide bat egina da, eta aurrera jarraitzeko hainbat ildo estrategiko daude. Esate baterako, hasierako prestakuntza —magisteritzatik edo irakasle fakultatetik datozen irakasle berriak oinarritzko kompetentzia hauetan eta zehar kompetentzietan trebatuta ateratu beharko dira— eta etengabeko prestakuntza elementu gakoa izango da.

Ebaluazioaren elementua ere funtsezkoa da. Kanpo ebaluazioaren eta barne ebaluazioaren arteko uztarketa egitea izan behar da xedea. Eta aztertu behar dugu eskoletan egiten ari den lan guztiaren arteko uztarketa lanak nola lortu, familiak nola eta gizarteak nola inplikatu gai hauetan. Azken batean, gero eta garbiago dago guztiok garelako hezkuntza eragileak. Herri hezitzaile batean bizi garelako sinesten badugu, hezkuntza-planteamendua ere guztiok batera egin behar ditugu.



LOMCEri ez, Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki

LOMCE ez aplikatzeko eta beste hezkuntza eredu bat eraikitzeko 10 neurri zehatz

LOMCEk eraginik izan ez dezan

Hezkuntza Plataformen Topaguneak “Gure Gida”-ren lanketa praktikorako lansaioa egin zuen iragan abenduaren 6an, Durangon. 110 lagun inguru elkartu ziren bertan. Tartean ziren herrietako hezkuntza bilguneetako kideak, hezkuntza-eragileetako ordezkariak, gurasoak nahiz bestelako herritarrak. LOMCEri aurre egiteko eta Euskal Herrirako hezkuntza propioa eraikitzeko 2014ko udaberrian argitaratutako “Gure Gida” izeneko txostena oinarri hartuta, gaur egungo hezkuntza ereduaren gainean eztabaidatzeko parada izan zen bertan. Handik ateratako ondorioekin LOMCEri aurre egiteko neurri zehatzak proposatzen dituen txostena aurkeztu zuen Topaguneak otsailaren 7an.

Lau atal nagusitan banatu dute txostena —parte-hartzea, pedagogia eta curriculum, ebaluazioak eta arlo administratiboa— eta orotara 10 neurri zehatz definitu dituzte LOMCEren aplikazioa eragozteko eta bestelako hezkuntza eredu bat eraiki ahal izateko.

PARTE-HARTZEA

Partaidetza kolektiboan oinarritutako parte-hartze demokratiko erreal, parekide, eraginkor eta loteslea du helburu Hezkuntza Plataformen Topaguneak: “Herritarra, eremu

guztietara zabalik, hezkuntza gaiak eta eskola bizitzako plangintza eta curriculum landuko duen parte-hartze ereduaren bidea egin nahi dugu, non hezkuntza komunitateko estamentu guztien partaidetza aktiboa bultzatuko dugun horien artean sortu litezkeen botere harremanekin errotik bukatuz”. Xede horrekin bost neurri zehatz proposatzen dituzte atal honetan.

1. neurria: Hezigune bakoitza dagoen egoeratik abiatuz, parte-hartze demokratiko eta loteslea lortzeko, erritmo desberdinetan bada ere, erabakiguneak definitu eta eraikitzea. Izan ere, unetoan eskolaren izaera eta borondatearen menpe dago parte-hartze demokratikoa, hortaz, plataformaren ustez, ezinbestekoa da ideia hori heziguneetara eramatea.

2. neurria: Hezigune bakoitzean, parte-hartze modura, bai urteko plangintzan eta bai erabakigarriak diren kontuetan heziguneko komunitate osoak hartu behar du parte hasieratik, bai diseinuan eta bai aplikazioan. Eta hori lortzeko egitura eta formula egoikiak adostuko dira.

3. neurria: Parte-hartze eredu desberdinen berri izatea hobesten da. Esperimentazio positiboak eta onak webgunean eskegiko dira edota beste formularen

bat aurkituko da horiek zabaltzeko.

4. neurria: Parte-hartze demokratiko erreal eta eraginkorraren bidean lan handia dago egiteko eta nahiz eta egoera desberdinetatik abiatu norabide horretan gogor egingo da lan.

5. neurria: Hezkuntza batzorde zabala eratzea herriz herri. Hezigune desberdinetako parte-hartze organoak, udala, hezkuntza eragileak, adituak... egongo lirатеke, eta bertan lantzen diren helburu eta edukiak lotesleak izango lirатеke. “Udal eta heziguneei autonomia handiago izan behar dute. Herri curriculum garatzea izango du helburu, besteak beste, batzorde horrek”.

PEDAGOGIA ETA CURRICULUMA

Pertsonen garapen integrala bermatzen duen pedagogia du jomugan txostenak. Hainbat pedagogia-ildo jarraitzea proposatzen du: Pedagogia pertsonalizatua eta ikasketen erritmo ezberdinak errespetatzen dituena; ikasketen esanguratsua eta inguruarekin harreman zuzena duena; hezkidetzan eta berdintasunean oinarritua; konpetentzien garapena lantzen duena; ikasle euskaldun eleantzen hezten duena eta aniztasunari erantzun inklusiboa ematen diona.

Era berean, oinarri gisa euskal curriculumak duten heziguneak eraiki nahi ditu, 2006ko Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioak dioten bezala, “heziguneak inguruarekin harreman zuzena izan behar du. Ingurua integrazteaz gain, inguruan eragin behar du, eraldaketak gauzatu nahi baditu. Beraz, Euskal Curriculumak eta herriz-herriko Herri Curriculumak garatzea pedagogia koherentea da eta baliagarria herritarren kohesioa lortzeko”.

6. neurria: “Ingurune” arloaren banaketari dagokionez, momentuz LHko 1. 3. eta 5. mailetan ezarri da eta irakasgaia bitan banatzen da “Gizarte Zientziak” eta “Natur Zientziak”. LOMCEren arabera kalifikatu beharko dira, nota berezituarekin eta aktetan ere era berdinean agertuko dira. Horren aurrean hainbat urrats proposatzen ditu txostenak:

6.1 “Ingurune” bezala ebaluatzea eta nota bikoiztea, horrela benetan irakatsi den bezala ebaluatuko baita, ebaluazioari dagokion garrantzia eta koherentzia emanaz.

6.2 Aktetan, bi arloetan, ikasle guztiei “bikain” jartzea, planto gisara.

6.3 Proiektuekin lanean jarraitzea.

6.4 Familiek ere notak jasotzean ondoko oharra idaztea: “Ikastetxe honetan LOMCE inposatu zaigu. Hala ere, bertako parte-hartze demokratikoa oinarri hartuta eta komunitateak hala erabakita, LOMCEren kontra agertzen garela adierazten dugu. Hau horrela, inposatzen diguten ‘Ingurune’ ikasgaiaren banaketaren aurrean ondorengo diogu: guk gure hezkuntza proiektuaren mesedetan ‘Ingurune’ irakasgaia ematen jarraitu dugu eta hala ebaluatu dugu. Dena den, legeak hala inposatuta, aktetan zatitutako nota gisa agertuko da, nahiz eta horrelakorik egin ez izan”.

6.5 Sentsibilizazio kanpainak egitea, proposamenak eta alternatibak ongi ulertzeko. Hala, hezkuntza komunitate osoa kontuan hartzeaz gain, partaide sentituko litzateke.

7. neurria: “Erljioa” eta “Balio zibiko eta sozialak” irakasgaiari begira,

ikasturte honetan 1. 3. eta 5. mailetan ezarrita daudenez eta ikaslearen espedientean ebaluatuta agertuko direnez, hainbat proposamen zehatz egiten ditu Hezkuntza Plataformen Topaguneak:

7.1 Ikasle guztiei Bikain jartzea: “Ikasturte honetarako inkoherezia bat planteatu da, kurtso hasieran gaitegi bat ematea eta hori ebaluatzeko eskatzea. Balore sozialak ezin direla ebaluatu pentsatzen badugu eta balore sozialak ekintzaren bidez irakasten direla uste badugu, ikasle guztioi Bikain jarriko zaie”.

7.2 Notetan oreka bat mantentzea, hau da, “Balio Zibiko eta Sozialetako” notak eta “Erljioak” orekatzea eta antzekoak izatea.

7.3 Balore sozialak ez ebaluatzea, nahiz eta ikasle bat irakasgai horretan matrikulatuta ez egon balore sozialak zeharka curriculumean landu beharrekokoak liratekeelako.

8. neurria: Laster hurrengo ikasturteko testuliburuak aukeratu beharko direlako, LOMCE aplikatzen duten testuliburuaren arabera ez funtzionatzea proposatzen da, eta horren ordez, Euskal Herritik eta Euskal Herrirako ekotzitako testuliburuak erabiltzea.

EBALUAZIOAK

Ebaluazioak ikaslearen garapen osoa kontuan hartuko duen etengabeko prozesua izan behar du txostenaren arabera, hezitzailea eta erregulaztailea, norberaren garapen pertsonala ardatz duena.

9. neurria: 3. mailako ebaluazio diagnostikoa aurten hasikodenez, bali-teke proiektu pilotu baten antzekoa izatea Hezkuntza Plataformen Topagunearen ustean. “Nafarroan hasi dira jada honekin. EAEn ere %6ak egin du pilotajea. Beraiek aukeratutako ikastetxeak hartzea eta bertan errebaliden sistemari hasiera ematea izango da formula”. Horrez gain, 4. mailako diagnosi-froga ere izango da ikasturte honetan, orain arteko berdina. Horren aurrean hainbat gomendio zehazten dira

txostenean:

9.1 Azterketaren egunean ikastetxean jaia edo irteera antolatzea. Txostenak argitzen duenez, neurri hori erabilgarria izango da kanpotik badatoz ebaluazioa egitera. Eguna eskolak berak aukeratzeko bada, eta bertako ikasleekin, ez da bideragarria.

9.2 Egun horretan ikaslea eskolara ez bidaltzea.

9.3 Hezkuntza Saitetik zentroari eskatzen bazaio pilotaje horretan parte hartzea, zuzendariak gaia Eskola Kontseilura eramatea proposatzen da eta guztien artean erabakia hartzea, eta erantzunaren argumentazio osoa Hezkuntza Sailari helaraztea.

9.4 Azterketan izena jarri eta beste ezer bete gabe entregatzea: “Neurri honekin familia bakoitzak adierazten du ebaluazio hori ez duela ontzat hartzen eta beraientzako ikaslearen tutoreak egiten duen ebaluazio jarraia dela edozein erabaki hartzeko kontuan hartuko den iturri bakarra”.

9.5 Gurasoek euren seme-alaben ikasketak kaltetuko dituen errebaliden sistemari uko egitea: “Neurri horrekin familiak erabaki sendoa hartzen du nahi duen hezkuntza sistemari begira. Nola nahi duen bere seme-alaba ebaluatua izatea, era jarraian beraren tutorearengandik. Eta kanpoko ebaluazioak ez direla egiten ikaslearen mesederako, sistema lehiakorra ezartzeko baizik, eta irakaste prozesua lasterketa prozesua bilakatzeko asmoarekin”.

ARLO ADMINISTRATIBOA

10. neurria: DAEa urtero bezala itxi beharra dagoenez, aurten LOMCEren arabera egin beharko litzateke. Horren aurrean, zera proposatzen du txostenak: DAE programa informatikoa ez ixtea, ORGaren babesa lortzea eta Hezkuntza Sailari bidaltzea, akta ofizialak ez sinatzea eta dokumentu alternatibok erabiltzea ikaslearen ikasketa prozesua islatzeko, eta Hezkuntza Sailari hartutako erabakien inguruko babesa eskatzea.



0-3. Hezitzaileen formazioa

Cristina Goñi, Baztango haur-eskolaren zuzendaria

“Espazioak hezitzailea izan behar du, proiektu pedagogikoarekin koherentea”

Haur-eskola batek hartzen duen espazioak islatzen du haur-eskola horren proiektu pedagogikoa. Ideia hori ardatz harturik, hitzaldia eman zuen Cristina Goñik HIK HASIk 0-3 urteko haurren hezitzaileentzako antolatzen duten formazio-zikloan. Izan ere, Goñik eta bere lantaldeak diseinatu zuten Baztango haur-eskola berria izango zena, eta, horretarako, Italiako Reggio Emilian Loris Malaguzzik sustatutako esperientzietan ikusitakotik abiatu ziren. Baztango Udalaren laguntza eta babesa izan zuten proiektua garatzeko. Horrela, hasiera-hasieratik udal arkitetoei elkarlanean aritu ziren, espazio berria haur-eskolaren proiektu pedagogikoaren neurrira sortzeko.

Zer ekarpen egin dio espazio berriak proiektu pedagogikoari?

Haur-eskola honen ezaugarri nagusia espazioa da, beti erraten dugu garrantzitsuena dela. Izan ere, espazioa da hirugarren hezitzailea. Espazio egoki batean, zure pedagogia eraman ahal duzu aitzinerat; pedagogia islatzen da haur-eskolan, espazioan. Esango dizut esaldi bat arras polita,



Cristina Goñi, formazio-zikloan emaniko hitzaldian.

Annalia Galardini aditu italiarrarena: “Pedagogia espazioan islatzen da eta espazioak pedagogiaren berri ematen digu.” Eta egia da!

Gaur egun ditugu hiru espazio handi, eta espazio bakoitzak badu dena: ikasgela, jangela, komuna, logela... Haurrak espazioetan banatzen ditugu adinaren arabera: batean titi-ak, titikoak; bestean 1-2 urtekoak, Ibiltari deiturikoak; eta beste espazioan 2-3 urtekoak daude. Espazio horiek guztiak elkarren artean komunikatuta daude. Lehen, aldiz, espazio

bakarrean egin behar genuen dena. Espazio txiki batean egiten genituen jolas libreak, bazkaria, loa, tailerrak...

Adin guztietakoak nahasian al zeuden espazio bakar horretan?

Bi gela genituen, adinaren arabera banatzeko haurrak, baina nahasten genituen orain baino gehiago. Gero, espazio gehiago izan dugunean, erabaki dugu haurrak adinaren arabera banatzea. Zergatik? Haurrek badute beraien erritmoa, eta, interesgarria izan arren batzuetan nahastea, aise

hobe eta lasai daude titikoak, adibidez, beren gelan. Eta berdin 1-2 urtekoak eta 2-3 urtekoak. Izan ere, 2-3 urteko ume batek dauka izugarrizko indarra, eta nahiz eta ez duen mina egin nahi, agian zapaltzen du ttipia, edo bultza egiten dio. Gainera, erritmoak ebolutiboki dira desberdinak, daude momentu arras desberdinetan, eta kalitatea emateko, behaketak mantso-mantso egiteko eta ezagutzeko umeak ondo, hobe da umeak banatzea adinaren arabera.

Beraz, baditugu hiru kubo izango balira bezala, eta bakoitzean adin tarte bateko haurrak daude. Hiru kuboak komunikatuta daude elkarren artean, eta umeak konpartitzen dituzte hainbat une, adibidez patioan. Ttipi-ttipiek gutxiago, egoten dira gehiago beraien gelan, edo ateratzen badira beraien barrik. 1-2 eta 2-3 urtekoak, baina, nahasten ditugu gehiago, baina ez ikasurte hasmentan, baizik eta jada egokitu direlarik.

Beraz, nagusiki hiru espazio horiek islatzen dute zuen proiektua?

Baditugu bertze espazioak ere: tailerrak, plaza, kanpoko espazioak, minitailerrak... Beraz, haur-eskolak ematen ditu aukera gehiago. Beti erraten dugu haurrei eman behar diegula aukera asko beraien ikertzeko, ikasteko, beraien bidea eraikitzeke. Bada, gure kasuan berdin: espazio egokiarekin irekitzen zaizkigu aukerak.

Adibidez, espazioak eman digu aukera banatzeko gure denbora eta egiteko gauza desberdinak; esaterako, tailerrak egiteko, Loris Malaguzzik proposatutakoaren bidetik. Izan ere, guk aspalditik jarraitu dugu Malaguzzik Italiako Reggio Emilian izandako esperientzia, eta orain dela 6-7 urte ezagutu genuen Emmi Pikler-ek Hungariako Budapest-en izandako esperientzia. Gaur egun gure pedagogia oinarritzen da bi esperientzia horietan: hartzen dugu guk hemen eraman dezakeguna aitzinerat. Izan ere, badira gauza arras onak, gero gure egoeratik edo gure

ratioarengatik direnak zail samarrak gauzatzeko; gu gara nahiko errealistak horretan.

Espaziora etorrita, beraz, aukera ematen digu bi esperientziak hobeto txertatzeko eta gauza desberdinak egiteko. Izan ere, guk ez dugu *egiten* aktibitatekerik umeekin: taillerretara eta joaten garelarik, *proposatu* egiten dugu. Haurrak erabakitzen du zer egin eta zer ez. Gure lana da aurkeztea materialak, gero eta interesgarriagoak, haurrak nahi badu ikertzeko, jolasteko... Horretan guztian espazioa arras lagungarria da.

Beraz, espazioak, baita ere, laguntzen du umeak mugitzeko lekuz, eskaintzeko aukera gehiago. Adibidez, nekatzen badira zaratarekin, bikote pedagogikoka egiten dugunez



Gardentasuna lortzen da kristalarekin; leihoak, berriz, titiko haurren neurria jarrita daude.

lan, bata gelditzen da gelan eta bestea joaten beste espazio batera; bai tailerrera, bai plazara. Haur-eskola honek ematen die aukera umei erabakitzeke non nahi duten egon, espazio batean edo bestean. Haurrak daude gusturago eremu zabalagoan eta harremantzeko goxoagoa da.

Familiak hobeki onartzeko ere lagungarria da espazioa. Eskola ttipi batek ez du gonbidatzen sartzera; al-diz, etortzen bazara eskola honetara eta ikusten baduzu nolako espazio xarmentak eta zoragarriak diren, handiak eta argitsuak, gonbidatzen du familiak sartzera barnerat. Ohartuko zaren bezala maiteminduta nago gure espazioarekin!

Horrek era laguntzen du eta errazten du gure lana, hezitzaileontzat ere plazer bat da haur-eskola honetan lan egitea, hain eroso da, hain

polita! Beraz, familiak daude arras gustura; haurrak, gure protagonista nagusiak, izaugarri gustura; eta guretzako ere plazer bat da.

Zein dira espazio banaketaren ezaugarri nagusiak?

Garrantzitsua da gardentasuna, eta hori lortzen da kristalera edo beirate handiekin, baina baita gure jarrerarekin ere. Espazio goxoak izan behar dira, hurbilak. Horretarako, koloreak izan behar dira arras atseginak. Esaterako, paretetako koloreak nahiko neutroak dira, eta kolorea sartu diogu materialekin, altzariekin, kuxinekin... Guk ere kolore pila bat transmititzen dugu gure arropekin, gure ilusioarekin.

Espazioak izan behar du hezitzaile-

lea, proiektu pedagogikoarekin koherentea, didaktikoa, motibatazailerak, erakargarria... Ondo pentsatu behar dira espazioak. Adibidez, pentsa egiten dizutela eskola berria, baina zuk ez duzu parte hartzen horretan. Iristen zara espazio horretara eta igoal arras polita da, baina ez da lagungarria zure lana aitzinerat eramateko; ez da funtzionala, ez da praktikoa. Baina langileei uzten badiote pentsatzen eta diseinatzen laguntzen, aitzineratzen da pila bat eta proiektu hori ateratzen da askoz hobe.

Ezaugarriekin jarraituz, haurrek bizi egin behar dute espazioa. Haurrei egokituta egon behar du, eta ez alderantziz. Horrela, haurrek espazioa aldatzeko gaitasuna izan behar dute. Guk uzten diegu aldaketak egiten: dena dutenez beraien altue-



Plaza da haur-eskolaren elkagunea. Kristalera handiak ditu eta kanpoarekin nahiz ikasgela barruarekin bisualki komunikatuta dago.

ran, joaten dira gauzak mugitzen.

Bestalde, garrantzitsua da espazioak egotea irekiak, eta konektatuak beraien artean. Gure lana errazten du edukitzeak gela, komuna, logela eta jangela elkarrengandik hain hurbil. Imajinatu egiten duzula haur-eskola bat non gela dagoen alde batean eta komuna bertze puntan; hori ez da erosoan lan egiteko!

Horretaz gain, guretzat garrantzitsua izan zen, adibidez, pentsatzea sukaldeari nolako garrantzia eman behar genion. Azkenean kokatu genuen plaza ondoan. Plaza oso garrantzitsua da guretzat. Plaza da gune bat elkartzeko familiak, umeak, langileak... Elkargunea da, espazio honen ardatzetako bat da.

Espazioaren osagarri dira altzariak eta materialak; horiek zein irizpideren arabera aukeratu dituzue?

Alfredo Hoyuelos pedagogoak eta Iruñeko Mendebalde eta Haurtzaro haur-eskoletako hezitzaileek lagundu ziguten hainbat altzari pentsatzen eta diseinatzen. Eta beste altzari batzuk ekarri genituen zuzenean Italiatik, Reggio Emiliatik. Ez zen erraza izan hori proposatzea Udalean, baina izan zengauza bat arras pentsatua, baloratu baikenuen zenbat kostatuko zen hemen egitea eta zenbat Italiatik ekaritzea. Italian egiten dituzte seriean; he-

men kopiak egitea da aise garestiagoa, eta, gainera, ez dira ateratzen hain ongi. Diru-muga bat bagenuen, eta ondo pentsatu behar izan genuen: gauza gutxi baina funtzionalak behar genituen.

Oro har, plastikozko gero eta material gutxiago erabiltzen dugu, Loris Malaguzziren esperientziaren bidetik. Ematen diogu garrantzia material desegituratuei, eta naturarekin lotuak daudenei; adibidez zurezko gauzei. Material beroak, goxoak behar dira.

Material guztiak altxorbate dira haurrentzako, baina ez digute erakutsi horiekin jolasten; beti oparitu izan digute panpina edo baloia, dena arras komertziala. Zuk haurrei eskaintzen badizkiezu material desegituratuak, ustez deus balio ez duten material horiek, baina oinarrian onak direnak, umeari ari zara ematen izugarritzko aukerak.

Adibidez, zopa tailerra izugarri gustatzen zaie. Izar formako fideo edo pastarekin egiten dugu, material arras beroa eta erlaxantea da. Sartzen dira oinutsik tailerrean, eta lurrean dago fideoa mukuru edo piloetan. Horrekin batera, ematen dizkiegu sukaldeko tresnak, pixka bat denetarik: zurezkoak, metalezkoak, ontzi desberdinak, sardeskak... Egotea dira jostatzen eta, gainera, esperimentatzen dute beraien gorputzarekin; ikasten dute pila bat. Ez dute fitxarik behar, behar dituzte aukerak esperimentatzeko. Eta es-

perimentatutakoaren bidez, barneratzen doaz kontzeptu pila bat.

Bestalde, hemengo espazioak eta altzariak dira balio anitzekoak. Guk ez genuen inoiz finkatu altzarien kokalekua, mugitzen joan ahal dira. Guk mugitzen ditugu, baina baita haurrek ere, eta hori arras interesgarria da, aukera asko ematen du. Adibidez, ikusten badugu haurrak aspertu direla, gela aldatu egiten dugu, eta iruditzen zaie daudela beste espazio desberdin batean; hori gustatzen zaie ikaragarri.

Formazio zikloan, bereziki zein ideia azpimarratu dituzu?

Aurkezpen bat prestatu genuen haur-eskolan eta honako galderak egin genizkion geure buruari: zer da espazioa eta zer ezaugarri dira garrantzitsuak espazio horretan? Hasi nintzen azaltzen zer den guretzako espazioa: leku baterlazioatzeko, pentsatzeko, sentitzeko, sortzeko, gozatzeko... Gero hasi ginen espazioaren ezaugarriez hitz egiten, aurreko galderan hitz egin dugunaren ildotik.

Hainbat espazio erakutsi nizkien formazio-saioan, baina azpimarratu nien bakoitzak eraiki behar duela berea. Ikusten ahal dituzu beste espazioak eta erraten ahal duzu "nik nahi dut hau". Eta ez, zuk egin behar duzu zeurea. Adibidez, hartzen ahal duzu Italiako eskola bat, hemen kopiatu eta esan "kitto, egin dut eskola". Baina eskola ez da egiten egun batetik bestera, landu behar duzu zure proiektua. Horregatik esaten dugu eskola bakoitzak bere eskola eraiki behar duela.

Espazioen elementuez ere hitz egin genuen. Denak hezitzen du, dena da pedagogikoa: altzariak, materialak, koloreak, estetika, antolaketa, denbora, giroa, hezitzaileen jarrera... Den-denak eraikitzen du espazioa. Azkenik, azaldu nien eskolan nor gauden: protagonistak haurrak dira, eta horien inguruan daude talde pedagogikoak eta familiak. Familiei garrantzia handi-handia ematen diegu.

HEZKUNTZA EREDUEN GARRANTZIA GIZARTEAREN ERAIKUNTZAN

LA IMPORTANCIA DE LOS MODELOS EDUCATIVOS EN LA CONSTRUCCIÓN SOCIAL

JARDUNALDIAK / JORNADAS

SAN TELMO MUSEOAN / EN EL MUSEO SAN TELMO

martxoak / marzo

24

17:30-20:00

Legebiltzarkideekin batera hausnartzen.
Reflexionando con los/las parlamentarios/as.

25

09:30-11:30

Sindikatuak
Sindicatos

15:00-17:00

Hezkuntza Plataformen Topagunea
Hezkuntza Plattformen Topagunea

17:30-20:00

Hezkuntza eragileak
Organizaciones del ámbito de la educación.



Sarrera librea lekua bete eta aldibereko
sulpena izango da.

Entrada libre hasta completar aforo. Se contará
con traducción simultánea.

Antolatzaileak / Organizadores:



Departaketa 1444
Auzolanerako de San Sebastian

Hezkuntza Auzola
Secretaría de Educación

Loguntzaileak / Colaboran:

Donostia Hiria
Hezitzaileak



San Sebastián
Ciudad
Educadora



STM
San Telmo Museoa

Familiak eta eskola norabide berean

Gernikako Allende Salazar eskolan, gurasoentzako prestakuntza-lantegiak jarri dituzte martxan. Autonomia, errutinak, arauak, frustrazioa, irakurketa, adimen emozionala, ardura, autoestimua eta antzeko gaiak jorratzen dituzte eskolak eta familiek elkarlanean antolatu dituzten prestakuntza-saio teoriko-praktiko horietan. Gurasoei ez ezik, haien seme-alabei ere zuzentzen zaizkie lantegiak, bai eta hezkuntza-komunitate osoari ere: irakasleei, jantokiko profesionalei, garraio-zerbitzuetakoei... 2013-2014 ikasturtean sukaldelanak egin ostean, joan den irailean jarri zuten abian egitasmoa. Antolatzaileak, oraingoz, oso gustura daude lantegiak ematen ari diren fruituekin: alde batetik, familia eta irakasle asko ari direlako parte hartzen; eta, bestetik, lantegi horietan jorratzen dituzten gaiak hausnarketarako bidea irekitzen dietelako. Hala ere, jasotzen dituzten prestakuntza-saioen gaineko ebaluazioak ari dira egiten, eta zenbait hobekuntza txertatzeko asmoa dute, datorren ikasturteari begira.

Familien eta eskolaren arteko harremana ez da kontu berria Allende Salazar eskolan. Bi alderdien arteko elkarlanak hainbat urtetako ibilbidea du. Eskola beti ahalegindu izan da gurasoengana ahalik eta gehien hurbiltzen eta



haien parte-hartzea sustatzen, baina familiak ere, oro har, hasieratik inplikatu dira ikastetxeko auzietan, eta guraso-elkartea ere oso aktiboa izan da sorburutik. Eskolaren eta familien arteko lan-kidetzaren horren fruituetariko bat da joan den irailean martxan jarri zuten guraso-eskola.

Gurasoei zuzenduriko lantegiak ez dira berriak Gernikako ikastetxe horretan. Lehen ere gurasoei zuzenduriko hitzaldiak antolatzen zituzten, eta, normalean, oso lagun gutxi parte hartzen zuten arren, konturatu ziren jendetza bildu zela bizpahiru saiotan, zehazki, sare sozialei, dislexiari eta etxeko lanei buruzkoetan. Guraso-elkarteko presidente Iratxe Amezuak azaldu duenez, gurasoek bazuten hainbat gairen inguruan interesa; formatua, ordea, ez zen egokiena beharbada: “Ohartu ginen, lantegi batzuetan guraso gutxi elkartzen ginen arren, oso saio mamitsuak izaten zirela, jendea bere beharizanak azaltzen eta bere esperientzia partekatzen hasten zela; aldiz, hitzaldi jende-

tsuetan, inork ez zuen berbarik egiten, eta ez zen ideia-trukerik gertatzen”. Hala, 2013-2014 ikasturtean, guraso, hezitzaile nahiz ikasleentzat interesgarri izan zitezkeen prestakuntza-saio eragingarriak nola antolatu aztertzen hasi ziren, eta, gutxika, egitasmo arrakastatsu bat egituratzea lortu dute.

Arrakasta horren gakoak ulertzeko, ordea, 2014-2015 ikasturterako antolatutako prestakuntza-saioetan txertatu dituzten hainbat berrikuntza izan behar dira kontuan: gurasoen nahiz irakasleen interes komunitatik abiatu dira proposamena egiteko orduan; lantegi teoriko-praktikoak dira; gurasoek ez ezik, haurrek ere parte har dezakete berrietan, bai eta eskola-komunitateko gainerako kideek ere; eta iraunkorrrak dira, hau da, 2 urteko haurrak eskolatzen dituztenean hasi, eta umeek 12 urte betetzen dituzten arte jaso daiteke prestakuntza.

Ezaugarri horiei beste osagarri bat ere gehitu behar zaie: irakasleek, bai zuzendaritza-taldekoek eta bai tutore-

ek eta gainerakoek, egin duten akuilulana. “Argi genuen gurasoengana iristeko bitartekorik eraginkorrena irakasleok ginela”, dio lehen zikloko Aritz Zearra tutoreak, eta zera gaineratu du Txarro Agirre ikasketaburuak: “Eskolak familiekin izan dituen batzarretan, lantegietan parte hartzera bultzatu dira gurasoak. Eskolak familiengana gerturatze-ko ahalegina egin du, eta, alde horretatik, oso pozik gaude, guraso askok eman baitute izena lantegietan”. Marian Araukoa zuzendariaren esanetan, berriz, familiekin egin izan dituzten batzarretan, konturatu dira gurasoen eta irakasleen interesgune eta jakin-min asko antzekoak direla, eta interesgarri litzatekeela gai komun horien inguruan bialderdien arteko truke bategitea: “Eskola honen ibilbidean, berrikuntza beti izan dugu erdigunean, eta hasieratik sustatu nahi izan dugu hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea eskolan. Era berean, gurasoek ere inplikazio handia erakutsi izan dute. Trukerako nahia agertu dute bi aldeek”.

Allende Salazarren, *Amara Berri* sistema erabiltzen dute. Lan egiteko moduan txertatuta dute autonomia, zirrararen adierazpena, ahozkotasuna eta antzeko gaien lanketa. Horregatik, irakasleek gurasoekin ere antzeko auziak jorratzeko interesa izan dute. Eskolan lantzen dutenaren eta haurrek hortik kanpo ikasten dutenaren artean koherentzia egon zedin nahi zuten irakasleek: “Sarritan, gai batzuk jorratzen dira eskolan, baina ez dira ikastetxeko lau pareten artean harago iristen. Guk, ordea, ahalegin berezia egin nahi dugu hemendik kanpo ere lantzen ditugun balio, gaitasun eta jarrekin garrantzia izan dezaten. Eta, zentzu horretan, oso interesgarri da gurasoak eta gu norabide berean aritzea”.

Familia osoari ez ezik, hezkuntza-komunitate osoari zuzenduriko es-

kaintza horren bidez, guraso-elkartearen helburuetariko bat ahalik eta guraso gehienengana iristea eta haien kezkei erantzutea izan da. Elkarteko kide Leire Etxeberriak adierazi digunez, zenbait auziri heltzeko orduan informazio eta prestakuntza beharrez daukela konturatu dira gurasoak: “Guraso artean parkean, kalean, patioan hizketan aritzean, konturatu ginen zenbait kezka partekatzen genituela; eta hutsuneak genituen gure haurren heziketari loturiko zenbait auziri heltzeko orduan. Baina, era berean, irakasleengana jotzea ere egoki iruditu zitzaigun, haiek eskolako eguneroko jardunean zein beharrezan ikusten dituzten jakiteko. Eta aurrera egin genuen bion arteko elkargune horretatik”.

Hala, lehenik, ziklo bakoitzeko gurasoen nahiz irakasleen artean lantegietan jorratu nahi zituzten gaien zerrendak egin zituzten, haurren adinaren arabera banatuta. Gurasoen zein irakasleen interesak ezagutu ostean, haurrei heziketa osoa emateko xedez eta eskolak eta familiak norabide bera izateko nahiarekin, hamar prestakuntza-saio antolatu zituzten adinaren arabera sailkatuta. Sei orduko lantegi teoriko-praktikoak dira, bi orduko hiru saiotan banatuta, eta arlo bakoitzeko adituek gidatzen dituzte saioak. Informazio-liburuxkan irakur daitekeenez, “prestakuntza horretan ez dira erantzun guztiak emango, baina gurasoek dituzten zalantzak argitzea eta heziketaren bidea zerbait erraztea izango da gure erronka, askotan egiten diren galderei erantzuna emanez eta jokoko-operatiboak erabiliz”. Haur-hezkuntzako haurren gurasoek zein hezitzaileek, besteak beste, “autonomia, estimulazioa, errutinak eta mugak” lantzen dituzte; haurrak 1. eta 2. mailan dituzten

gurasoek eta haiekin lan egiten duten profesionalek, “frustrazioa, autonomia, irakurketa eta arauak”; 3. eta 4. mailako ikasleen gurasoek, berriz, “aldaketa fisikoak, autoestimua, ardura eta adimen emozionala”; azkenik 5. eta 6. maila egiten ari diren ikasleen inguruko helduek “bullying-a, nerabezaroa, teknologia berriak, rolak edota drogak” gaiak jorratzeko aukera dute.

Baina, lantegi horiekin batera, haurrentzako saioak ere prestatu dituzte, saio horietan lantzen dituzten gaiak modu paraleloan umeekin jorratzeko. Hala, gurasoak ikastaroan dabiltzan bitartean, haurrak beste profesional batekin aritzen dira, arlo bera modu hezitzailean lantzen. Musika-terapia, zirrararen kudeaketarako dinamikak, antzerkia, gorputz-adierazpena edota psikomotritzitatea dira, besteak beste, haurrei bideraturiko lantegi horietan erabiltzen dituzten teknikak.



Euskal hezkuntzaren museoa

Euskal Herriko Unibertsitatearen Hezkuntzaren Museoa Donostiako Mirakruz gainean dago kokatuta, Villa Asuncionen. 2012an, EHUko Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak Hezkuntzako Azterketa Historiko eta Konparatuen Taldeari (Garaian) lehen solairuko gune bat eskaini zion eraikin horretan, haren proiektua garatzeko, eta, inurrien gisara etengabe lanean aritu ondoren, hezkuntzan erreferente izan daitekeen Euskal Hezkuntzaren Museoa bideratzeko lehen urratsak egiten hasi ziren. Une horretatik aurrera, lekua egokituz eta materiala pilatuz eta antolatuz lan emankorra egin du Garaian taldeak. Gaur egun, museoa errealitate da, eta irekia dago interesa duenarentzat, aurrez bisita hitzartuta.

Museo horren helburu nagusia Euskal Herriko hezkuntzaren memoria historikoa berreskuratzea, zaintzea eta ezagutaraztea da. Bestalde, museo pedagogikoen ohiko erabilerez gain (historia eta hezkuntza-ondarea katalogatzea eta zaintzea), ondare horren ikerketa eta erabilera didaktikoa ere xede ditu. Hezkuntzaren Museoa bultzatzerakoan, kontuan hartu dute gaur egun museo pedagogikoei eta memo-



riaren gune eta zentroei ematen zaien garrantzia; eta, horien barnean, hezkuntzaren memoriari ematen zaiona. Azken horiek, hain zuzen, garrantzi eta tradizio handia dute Europan.

Hezkuntzaren Museoa garatzeko

eskaini den espazioa lau gelatan banatua dago. Gelen banaketa egiterakoan, kontuan izan dira horrelako museoek izaten duten antolaketa eta Euskal Herriko hezkuntzak dituen bereizgarriak ere.



1. ESKOLAREN GUNEA. Frankismo eta LGE (1970) Erreforma garaiko ikasgelak

Frankismo garaiko *pupitre* edo ikasmahaiak, irakaslearen mahaia, arbela eta beste hainbat tresna eskuratu dituzte. Horiekin guztiekin, 50eko eta 60ko hamarkadetako ikasgela bat birsortu dute. Ikasgela elementu garrantzitsua da, hara jotzen duten bisitariak garai hartako hezkuntza aurrez aurre ikus dezaten eta nolakoa zen senti dezaten. Irakasle-eskolako eta Pedagogiako ikasleek bertan eman ditzakete hezkuntzaren historiari buruzko zenbait ikasgai.

1970eko Hezkuntza Erreformari dagokionez, beste gela bat ere eratu da, garai horretako materiala jarriz. Bi gelak bata bestearen ondoan daude, eta bien arteko konparazioa eginez,



izan diren aldaketak erraz nabarmendu daitezke. Gune hori Euskal Herriko eskoletako material eta argazkiekin osatzen ari dira.

2. EUSKAL HEZKUNTZAREN GUNEA

Gune horretan, II. Errepublika garaian Eusko Jaurlaritzak haurtzaroa babesteko eta hezkuntza suspertzeko egindako ekimenak azaldu nahi dira.

Haurtzaroren babesari eta laguntzari buruz egindako lanen artean, zera nabarmenduko dute: gerrako haurren ebakuazioa. Gerra garaian, Euskal Herriko haur asko gerraren guneetatik atara zituzten, eta Europako eta Mexikoko babesguneetara bidali zituzten. 1937an, Erresuma Batuko Southampton-go North Stoneham kanpalekura joan ziren haietako asko, ia 4.000. Gero, Ingalaterra, Gales eta Eskoziako guneetan banatu zituzten. Haietako haur batzuk Euskal Herrira itzuli ziren, eta beste asko hantxe gelditu, eta *Basque Children of 37 Association* elkarteak osatu zuten. Historia hori 19 paneletan jasodute, erakusketa bat osatzeko, eta, paneletan, haurren bidaia, harrerako guneak eta jasandako hainbat une eta egoera azaltzen dira, laburtuta.

II. Errepublika garaian, Eusko Jaurlaritzak suspertutako ekimenen artean, erreferente izan da Euskal Unibertsitatea abian jartzea. Gerra garaian horrelako ekimen bat garatzea izugarritzko lana izan zen, epe laburrerako izan bazen ere. Euskal Unibertsitatearen sorrerako historia azaltzeko, hainbat horma-irudi eta panel daude.

Gela horretan dituzte Bizkaiko eta Gipuzkoako landa-eskolen argazkien bildumak ere; eskola horiek bertako erakundeek landaguneetarako sortutako eskolak izan ziren, eta arrakasta handia izan zuten.

Espazio hori osatzeko, Errepublika





garaiko material ugari daude, eta, horien artean, ikasleen eskola-koadernoen bilduma garrantzitsu bat nabarmendu behar da. Donostiako hainbat eskolotako koadernoak dira, II. Errepublikara garaiko eta gerra garaiko koadernoak. Berorietan, beste ariketa batzuen artean, gerrako hainbat une azaltzen dira, ilustrazio ugariarekin.

Etxe-eskolak gaur egungo ikastolen aitzindariak izan ziren. Eskola haietan, irakaskuntza aktiboa lantzen zen, naturarekin zuzeneko harremana izateari eta hezkuntza ez-formalari bere garrantzia emanez. Eskola horietan erabilitako 40 eskola-koaderno eskarretik pasatu dituzte. Badaude etxe-eskola horietan ibilitako lekuko zuzeneko testigantza eta argazkiak ere.

3. IKASKUNTZA ETA IRAKASKUNTZAREN GUNEA: zientzien irakaskuntzako tresnak

Ikastetxe publiko eta pribatuetatik

jasotako tresna eta material zientifiko-en bidez, garaiko eskola-kultura eza-gutzera hurbil daiteke. Eskola batek duen edota erabiltzen duen material zientifikoak argibideak ematen dizkigu



eskola horren izaeraz ere. Eskola batzuek beren materiala utzi dute, eta, horrela, oso bilduma interesgarriak osatu dituzte: Biologia, Botanika eta Geografiako mapak; Historia Sakratuko kartelak; Fisika eta Biologiako materiala eta abar.

4. DOKUMENTAZIOAREN GUNEA

XX. mendean erabilitako testuliburuak, koadernoak... biltzen dira. Horrez gain, hezkuntzarekin zerikusia duen liburutegi zabal bat dute. Horrekin guztiarekin batera, XVIII., XIX. eta XX. mendeetako hezkuntzaren historiari buruzko liburuak aurki daitezke. Hango zenbait dokumentazio webgune horretan aurkitzeko aukera dago: <http://www.ehu.es/euskal-hezkuntza/euskara/>

Agertzen diren guneak etengabe osatzen ari dira. Hezkuntzaren Museoak ikuspegi didaktiko eta dinamikoa du. Gauregun, Euskal Herriko mugetatik kanpo garatzen ari diren ikuspegiak ere kontuan hartu ditu, eta, beraz, erreferente ditu Europako hainbat hezkuntza-museo.

Harremanetarako:

Luis M^a Naya eta Joxe Garmendia, EHU-UPVko irakasleak

Telefonoak: 943015601/943015747

Helbide elektronikoak: luisma.naya@ehu.es/joxe.garmendia@ehu.es

HAUR, NERABE ETA GAZTEEI BURUZKO JARDUNALDIAK
JORNADAS DE INFANCIA, ADOLESCENCIA Y JUVENTUD

Martxoaren 16an eta 17an

Irungo FICOBA erakustazokan



Gaztematikari
bidea zabaltzen

<http://gaztematika.gipuzkoangazte.eus/eu/jardunaldia>

txan
magoa

Ikuskizun berria

mundu
magikoa

Tel: 655 122 445 / txanmagoa@hotmail.com

Zer-nolako garrantzia dauka dokumentazioak eta, zehazki, bideoaren erabilerak irakasleen prestakuntzarako



Oso erreminta baliagarria da bideoa, irakasleek ikasgelan egiten dutenaren gainean, hots, euren jardunaren eta jokabidearen inguruan, pentsatzeko eta gogoeta egiteko nahiz irakaskuntza-prozesua hobeto ulertzeko.

Bideoaren erabilera azaltzera jo aurretik, eta irakasleen prestakuntza ulertzeko, kontuan izan behar da oinarritzko ideia bat: irakaskuntzak izaera soziokulturala du. Izan ere, mundu osoko irakasleen helburua berbera bada, hau da, guztien xedea haurrek ikastea bada, zergatik erabiltzen dituzte toki batean eta bestean estrategia desberdinak? Tesia egin nuenean, Estatu Batuetako eta Italiako irakasleen jarduna ikertu nuen, eta ikusi nuen arau desberdinak dituztela bietan, praktika desberdinak dituztela, haurren sozializazioa lantzeko era desberdina dutela, eta horrek guztiak irakasleen gelako jarduna baldintzatzen duela. Ikerketa hartatik, ondorio nagusi bat atera nuen:



Rosella SANTAGATA
KALIFORNIAKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA
ETA IKERTZAILEA

irakaskuntza bere testuinguru soziokulturalean soilik uler daiteke. Ideia kulturelek zuzenean eragiten diete gure hezkuntza-praktikei. Era berean, ikasleek ere funtsezko zeregina jokatzeko dute prozesu horretan guztian: modu jakin batean ikasten dute gizartean, eta, gero, eskema kultural horiek ikasgelan errepikatzen dituzte. Horrek esan nahi du hezitzaileek

konplexutasun hori guztia kontuan izan behar dutela irakasteko orduan.

Irakasleen prestakuntzaz hitz egiten dugunean, prestakuntzan eragina duen beste alderdi bat ere oso kontuan izan behar dugu: gaur egungo irakaslegaiak edota irakaskuntzan hasiberriak direnak garai batean ikasle izan ziren, irakaskuntza mota bat jaso zuten, era bateko zein besteko irakasleak izan zituzten, eta horrek guztiak hezkuntza ulertzeko modu bat sortu zuen haiengan. Hortaz, euren jaso zuten ikaskuntza-modua da gero euren gelan aplikatuko dutena; uste eta jokamolde jakin batzuk izan go dituzte, euren ere ikasle zirenean horrela irakatsi zitelako. Ez dute pentsatuko egiten duten hori zergatik egiten duten, ez dute gogoetarik egingo euren jarduteko moduaren gainean; aitzitik, inertzia jokatu dute. Zentzu horretan, irakasleen prestakuntza sozializazio-prozesu gisa ulertzen dut nik, bereziki praktika berriak irakasten edota hainbat estra-



Irakasleek gai izan behar dute euren artean irakaskuntzaz hitz egiteko eta euren eguneroko jarduna partekatze; ez dute beldurrik izan behar ikasgelako atea zabaltzeko eta elkarri laguntzeko. Horretarako erabil dezaketen erreminta bat bideo-analisisa da



tegia ezagutarazten ari gatzaizkielako. Baina ez hori bakarrik: estrategia zehatz batzuk irakasteaz gain, pentsatzeko modu berri bat ari gatzaizkie irakasten. Hortaz, irakasleak prestatzeko orduan, kontuan izan behar dugu nondik datozen etorkizuneko irakasle horiek, eta zer-nolako esperientzia bizi izan duten euren ikasle garaian. Hortaz, irakasleen prestakuntzari begira, oso argi izan behar dugu irakasle horiek motxilarekin datozela, eta ideia jakin batzuk dituztela irakaskuntzaren, gelan egin behar dutenaren nahiz ikasleekin izan beharreko harremanaren inguruan.

Irakasleen prestakuntzan eragina duen beste alderdi bat denbora da. Epe zehatz bat izaten dute irakasleek prestakuntza jasotzeko. Beraz, profesional onak izan daitezten, oso argi izan behar dugu zer irakatsi eta nola irakatsi. Gelan dituzten edota izango dituzten ikasleen gaineko aurreiritzi eta usteak irakaslegai edota irakasle hasiberri horiekin lantzea komeni da, oinarritzeko helburua irakasle horiek izango dituzten ikasle guztien gaitasunak atera eta gararaztea baita.

Garrantzia eman behar zaio irakasleen prestakuntzari. Izan ere, irakasleek gai izan behar dute euren

artean irakaskuntzaz hitz egiteko eta euren eguneroko jarduna partekatze; ez dute beldurrik izan behar ikasgelako atea zabaltzeko eta elkarri laguntzeko. Horretarako guztirako, hainbat erreminta izan ditzakete eskura: horietako bat bideo-analisisa da. Bideoak ikustea eta aztertzea lagungarria izan daiteke, prestakuntza jasotzen duten hezitzaileek haurrekin jarduteko hainbat modu ezaugarriak erabiltzeko horrela, horien gainean eztabaida eta gogoeta egin baitezakete, elkarlanean eskolan harremanak izateko eraz hitz egin baitezakete, irakasteko modua eraginkorra izaten ari den edo ez hausnar baitezakete, etab. Esan bezala, beraz, eskolak bideoan grabatu eta horiek aztertzeak lagundu egiten du, baina hori ez da nahikoa. Denbora asko eskaini behar zaio eskola-jarduna planifikatzeari ere, eta, horretarako, taldean lan egitea da egokiena. Binaka edo hirunaka lan eginez, irakasleek euren esperientzia parteka dezakete, eta bat-batean bestearengandik ikas dezake. Horrez gain, dagokigun gaiari buruzko liburuak elkarrekin irakurtzeak eta horrengainean hitz egiteak ere laguntzen du. Finean, elkarrekin lan egiteari garrantzia eman behar zaio.

Aipatu bezala, irakasleen prestakuntzarako gure erreminta nagusia bideoa da. Bideoaren lanketan, oinarritzeko lau alderdi izaten ditugu kontuan: lehenik, helburuak zein diren oso argi jakin behar da, bideoak erabilera ugari izan baititzake; adibidez, irakasteko modu zehatz bat ezagutzeko eta horren gaineko galderak egiteko erabil daiteke, edota irakaskuntzaren gainean gogoeta egiteko nahiz bideoan ikusten denari kritika egiteko eta hobekuntzak proposatzeko. Beraz, bigarrenik, erabiliko den bideoaren nolakotasunean eragina izango dute helburuek; adibidez, bideo batek praktika onak erakutsi ditzake, beste batek gela arrunt bateko jarduna azalduko du, edota, kasuren batean, bideo labur bat behar harko dugu, akaso haurren pentsamendu matematikoa aztertzen ari garela, eta arazo baten aurrean haur batek ematen duen erantzun labur bat ikertu nahi dugulako. Hirugarrenik, garrantzitsua da bideo horiek ikusteko jarduna gidatua izatea. Eta, azkenik, bideo horiek ikusiz irakasleek ikasi dutena ere ebaluatu egin behar da. Hortaz, hasieran helburu

Lan handia egin daiteke ikasleen pentsamenduaren erregistroaren gainean;

kontua ez da soilik pentsamendu hori ikusaraztea,

baizik eta jardun hori idatziz ere erregistratzea dokumentatuta gera dadin



batzuk ezartzen baditugu, bideoa modu eraginkorrean erabili dela ebaluatzeko gai izan behar dugu gero, eta baita aurrean izan ditugun erronkak dokumentatzeko ere.

Irakasleen prestakuntzaz ari garenean eta bideoak aztertzen ditugunean, irakaskuntza-prozesu guztia kontuan hartzea gomendatzen da. Hau da, irakaskuntza-prozesuaren barnean sartzen da irakatsi aurretik eta ondoren gertatzen den guztia ere. Horrexegatik, komeni da planifikazioa asko lantzea eta fokua analisisan nahiz hausnarketan ere jartzea. Baina prozesu horren guztiaren muina ikasleen ikaskuntza da; hau da, gure lan guztia ikasgelan ditugun ikasleei zuzendu behar diegu. Adibidez, planifikazioaz hitz egiten dugunean, esan nahi dugu ikasleek gelan planteatzen diren arazoei irtenbidea nola eman ahal izango dieten pentsatu behar dutela irakasleek. Hortaz, ikasleek erabiliko dituzten teknikak, estrategiak eta metodoak aurreikusi behar dituzte: “Bigarren mailako ikasle batek nola ebatz dezake problema hau? Eta beste zer teknika erabil ditzake? Zein izango dira arazorik arruntenak eta ohikoena?”. Lehen faseko lana da hori, baina, gero, pentsamendu mate-

matikoa lantzen ari bagara, pentsamendu mota hori nola sustatu hausnartu beharko dugu: “Zer galdera egingo dizkiet? Lan idatzirik eskatuko diet? Nolakoa?”. Baliagarria izan daiteke irakasleei euren ikasleen pentsamenduan sartzen lagunduko dien edozein estrategia: “Zer ari dira pentsatzen ikasleak? Nola ari da funtzionatzen ikasle horietako bakoitzaren garuna? Zein da euren pentsamendu matematikoa?”.

Lan handia egin daiteke ikasleen pentsamenduaren erregistroaren gainean ere; kontua ez da soilik pentsamendu hori ikusaraztea, baizik eta jardun hori idatziz ere erregistratzea, dokumentatuta gera dadin. Irakasle gisa, gure ikasleek nola pentsatzen duten dokumentatuko dugu, eta, horrela, ikasturtean zehar ikasle horren pentsamenduan gertatzen den garapena monitorizatu ahal izango dugu, eta bakoitzaren jarraipena egiteko aukera izango dugu. Era berean, ebidentzia hori, hots, pentsamenduaren erregistro hori, erabiliko dugu etorkizuneko eskolak planifikatu ahal izateko. Gure ikasleek ikasteko duten moduan, dituzten erronketan, konpontzen dituzten arazoetan... oinarrituko gara gure jarduna berrikusteko eta etorkizunean emango ditugun eskolak eta gure jarduteko modua hobetzeko.

Irakaskuntza-ekintza bat aurrean dutenean, irakaskuntza-ekintza horrek zer helburu nagusi duen pentsatu behar dute irakasleek; hau da, gela horretako ikasleek lortu beharreko helburu nagusien gainean gogoetan egin behar dute, eta, gero, ebidentziak edo probak aztertu behar dituzte, zehaztutako helburura iristeko haurrak zer aurrerapen ari diren egiten ikusteko. Finean, irakasleek euren ikasleak ikasten ari direla demostratu behar dute. Horretarako, haurrak esaten duen horretan oinarrituko dira batzuetan; beste batzuetan, berriz, haurren lan egiteko moduan.

Adibidez, hurrei eska diezaiekegu euren pentsamendu matematikoa esplizitatzeko moduren batera. Beste batzuetan, ordea, ez da izaten ikas-kuntza-prozesuaren ebidentziarik. Izan ere, gerta daiteke nahikoa elementu ez edukitzea eskola-ordubatean hurrek ikasi duten edo ez jakiteko. Eta galdera interesgarri batera garamatza horrek: zer egin dezake irakasle batek ikasleek euren pentsamendua adieraz dezaten eta eskolan pentsamendu horren arrastoak utz ditzaten aukera gehiago sortzeko? Hortaz, bideoa ikusten dugun heinean, lehen-lehenik, ikasleen pentsamendua eta ikaskuntza-modua aztertuko ditugu, eta, gero, irakasleak erabili beharreko estrategiez gogoeta egingo dugu; hau da, ikaslearengan zentratuko gara lehenik, eta, gero, irakaslearengan. Zera galde dezakegu: eskola-ordu honetan zer egin du irakasleak ikasleei laguntzeko? Zerk balio izan die ikasleei, eta zerk ez? Eta azken urratsa eskola nola hobe dezakegun pentsatzea litzateke: ikasleek zer ulertu dute? Zer ez? Zer landu behar dute gehiago? Aurrera begira zer egin pentsatzea litzateke kontua, betiere jarduna hobetzea helburu hartuta.

Laburbilduz, esango nuke, ikaskuntza-prozesu baten garrantzia ulertzeko, testuinguru soziokultural eta historikoa oso kontuan izan behar dela. Zergatik? Testuinguru jakin bateko kide garelako, eta irakaskuntza eta ikaskuntza-prozesua testuinguru horretako arauak eta praktikek baldintzatzen dutelako. Jardun horretan irakasleei laguntzeko, oso erreminta baliagarria da bideoa, baina tresna bat da, inola ere ez helburua. Eta, gainera, oso ondo pentsatu behar da nola erabili. Amaitzeko, irakaskuntza-jardunaren ikerketa oso konplexua denez, garrantzitsua da elkarlana, une oro hausnartu behar delako nola ari garen irakasten eta aurrera begira nola hobe dezakegun praktika hori. •


argitalpenak



Ongi joan!
Liesbet Slegers



Akim ihesi
Claude K. Dubois



Hartzak
Ruth Krauss eta Maurice Sendak

IBAZABAL


Hainbat ibilgailu ezagutzeko aukera ematen du liburuak: hegazkina, autoa, itsasontzia... Liburuaren orrialdeak zabaldu egiten dira bi aldeetatik eta, hori egitean, garraio bide bakoitzaren tamaina handiko irudia agertzen, testu labur batek lagundurik. Hemezortzi hilabetetik gorako haurrei zuzendua dago. •

ELKAR

Gerraren indarkeria bere azalean ezagutu du Akimek: bere herria eta etxea suntsituta ikusi ditu, eta bere familia eta lagunak galdu ditu. Azkenean, ihes egin beharko du. Baina soldadu batzuk atzeman dute, eta haien esklabo bihurtuko da... ihes egitea lortzen duen arte. Liburu hau 6 urtetik gorako haurrei zuzendua dago. •

PAMELA


Lotara joateko orduan hasten da istorioa. Txakur batek peluxe zko hartza lapurtzen dio haur bati, eta, hori ikusirik, hartz ikaragarri osaturiko talde bat lapurraren atzetik abiatzen da. Bidean toki eta egoera harrigarriak aurkituko dituzte, ustekabeko amaiera batera iritsi arte. 3 urtetik gorako haurrei zuzenduriko liburua da. •



Mattin basoko gidaria
Jabier Erostarbe



Euskoman. Izan ala ez izan!
Ion Iñaki Artetxe
eta Kaiet Bengoetxea



Ingurumarian
Julie Safirstein

IZBA

Komiki-liburu honetan, Mattin artzain zuberotar gaztea da protagonista. Alemaniako naziek Frantzia okupatu dute, eta horrekin Ipar Euskal Herria. Mattinen aitak ihes egin behar izan du, alemaniarren aurkako erresistentzia mugimenduko kide delako. Baserrian hegazkin pilotu ingeles bat gorde dute. •

LUTERL

Berria egunkariaren *Mantangorri* gehigarrian argitaratu ziren jatorrian Euskoman antiheroien istorioak, eta orain bilduma batean jaso dituzte bere abentura esanguratsuenak. Getxoko komiki azokan aurkeztu zuten bilduma. •

TTARTTALO

Narrazio grafikoa da hau, eta, horrenbestez, ilustrazioek eta koloreek garrantzi handia hartzen dute. Zer da ñimiñoa? Zer erraldoia? Nola bereizi gaua eta eguna? Urtebetetik gorako haurrei zuzendua dago eta koloreak, zenbakiak, aurkakoak eta formak ikasteko iruditegi ikusgarria erabiltzen du. •

hik hasi-ren proposamena

BENGOLA, NATUR ENERGIAREN INTERPRETAZIO ZENTROA

Energia berriztagarrien garrantziaz jabetzen

Lea Ibarrean dago Bengola Natur Energiaren Interpretazio Zentroa, Bizkaian dokumentatu den burdinola zaharrenetakoa (XIV. mendea) zegoen tokiari. Energia berriztagarrien inguruko informazioa eskuratzeaz gain, ikasitakoa praktikan jartzeko hainbat lantegi egin ditzakete bisitariek. Lea ibilbidearen eta bailararen inguruko interpretazio-zentroa ere hortxe dago, Lea Ibarreko kultura eta natura batzen dituen “Lea: ingenio & natura” turismo-proiektuaren atal bat baita Bengola zentroa.



Energia hidraulikoa, eolikoa, fotovoltaikoa, geotermikoa eta biomasa-energia modu didaktikoan eta erakusketa-instalazioen bidez ezagutzea Bengola Natur Energiaren Interpretazio Zentroan. Energia lortzeko hainbat modu ezagutzera emateaz gain, energia berriztagarrien garrantzia azpimarratzea du xede zentroak, bai eta iraganeko energia garbierak erabilera eta erroten eta burdinolen funtzionamendua azaltzea eta Lea ibilbidearen eta bailararen interpretazioa egitea ere. Horrez gain, ikasitakoa praktikan jartzeko hainbat lantegi egiteko aukera ere badute bisitariek.

Bengola Natur Energia Interpretazio Zentroa hainbat ataletan banatuta dago, eta bakoitzak bere berezitasunak eta informazio berezia ditu:

- Turbina hidraulikoa: eraikinaren sotoan dago, eta taldeen bitartekotasun bitartez elektrizitatea nola sortzen den azaltzeko.

- Energia berriztagarrien gela: gela horretan, energia berriztagarriak lortzeko hainbat modu azaltzen dira, hala nola hidraulikoa, eolikoa, fotovoltaikoa, termikoa, geotermikoa edota biomasa-energia.

- Leako altxorren interpretazio-gela: Lea bailaran horren oparoak

izan diren burdinolen eta erroten funtzionamendua azaltzen da gela horretan, eta bailaran aurki daitezkeen ondarearen berri ematen da.

- Hausnarketarako gunea: energiaren historiaren inguruan gogoeta egiteko espazioa da.

- Teilatua: alde batetik, eguzki-plaka fotovoltaikoak daude ikusgai, eta, bestetik, Oizeko parke eolikoa interpretatzeko panelak.

Lea ibaiaren ibilguan

Munitibarrek, Aulestik, Gizaburuagak, Amorotok eta Mendexak osatzen dute Lea Ibarra. Errekak ematen dio izena bailarari, eta, haren bo-

kaletik, Mendexatik, abiatuta, 23 kilometroko ibilbidea egin daiteke ibaiertzetik Munitibarreraino. Errekarri lotutako errotek eta burdinolek eta ermita, dorre eta baserriek osatzen dute paisaia.

Lea Ibarren urrezko aroa ere (XVI. eta XVIII. mendeak) ibaiari lotuta dago; orduan eraiki ziren Europako abangoardia izan ziren bertako teknologia hidraulikoak: burdinolak, ontziolak eta errotrak. Ibaia bera da, beraz, bailara ezagutzeko biderik hobena, eta aukera paregabea ematen du horretarako Lea Ibarreko bost herriak zeharkatzen dituen ibilbideak.



BENGOLA

Bisita gidatuak egiten dira, hitzordua aldez aurretik zehaztuta.

- Bi orduko bisitak (10:00etatik 12:00etara 4€/ikasleko) edo bost ordukoak (10:00etatik 15:00etara 8€) egin daitezke.

- Informazio gehiago eskuratzeko edota erreserba egiteko:

+ Helbide elektronikoa: bengolanaturenergia@live.com

+ Telefonoa: 649 795 484 – 650 124 729

Eskaintza berezia ikastetxeentzat

Irailaren 1etik ekainaren 30era, neguko ordutegian dago zabalik zentroa: zapatuetan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Igande eta jaiegunetan, berriz, 11:00etatik 14:00etara. Bisita gidatuak egiteko aukera ere bada, 12:00etatik 13:00etara.

Eskaintza berezia daukate ikastetxeentzat Bengola Interpretazio Zentroan. Asteartetik ostiralera dago zabalik eskoletako taldeentzat. Bi aukera daude: alde batetik, bi orduko bisita gidatua egin daiteke, 10:00etatik 12:00etara. Bisita horretan, energia berriztagarriak ezagutuko dira, naturarekiko eta ingurumenarekiko errespetua jorratuko dira, eta kultura eta ondarea ezagutaraziko dira. Bestetik, eguna pasatzeko aukera ere ematen dute. Bisita horren barruan, bost kilometroko txango bat egiten da oinez Lea ibilbidean zehar, Aulestitik irtenda. Gero, berriz, Bengola burdinola eta parkea ezagutzeko aukera dute ikasleek, eta, azkenik, interpretazio-zentroa bisitatzeko. Bazkaltzeko tokia ere bada Bengolan, horretarako prestatutako gela bat baitaukate. Eguraldi ona denean, berriz, kanpoan jateko aukera izaten dute ikasleek.

Bisitetan parte hartzeko, www.leaibarra.com webgunean dagoen eskaera-orria bete behar da. Orri horretan, galderak egiten dira bisita prestatzeko eta bisitariari ahalik eta egun atseginena igarotzen laguntzeko. Eskaria eginda, Bengola Interpretazio Zentroko arduradunak harremanetan jartzen dira bisitariarekin, eguna zehazteko.



atzeko atetik



Beñat GAZTELUMENDI

BERTSOLARIA

Orriak eta orriak eta orriak. Denak zirriborroz beteak, hitz bat bestearen aldamenean, bestearen gainean, bestearen azpian. Ezabatutako hitzak, ezabatua gainean idatzitakoak... Eta hitz zerrenda luzearen aldamenean, bertso formako lehendabiziko aletxoak. Nola irakurtzen genituen, nola kantatzen genituen hainbeste ordutako ahaleginetik sortutako altxor labur horiek, urduritasunak eraginda minutu erdi batean kantatuak.

Paperaren makuluarekin ikasi genuen bertsotan. Eta paperean dena zen posible; lortzen genuen esan nahi genuena esatea, denbora kontua zen, ahalegin kontua, umetatik behin eta berriz entzundako “saiatuz gero dena da posible” famatua. Eta saiatu ginen, zirriboratu genituen orriak, baina,

Saiatzeaz eta lortzeaz

egun batean irakasleak mahaitik altxatzeko eskatu zigun. Erratz bat zegoen parean, aulki batek eutsia. Eta erratzaren muturretik kantatu behar genuen guk. “Lasai, paperean bezala: lehenengo bukaera pentsatu, oinak ondoren eta... aurrera”. Eta hasi ginen. Pentsatu genuen bukaera. Pentsatu genituen lau oin. Kontatu genituen silabak poltsikoetan. Eta buruko orri zurian ustez seguru geneukana kantatzen hasi ginen. Baina kantatu ahala hitzak lekuz mugitzen zitzaizkigun; ustez hiru silaba zituen hitzak lau hartzen zituen, eta ustez gauza bat esan nahi zuen hitzak beste zerbait esaten zigun. Eta hala hasi ginen, zentzurik gabeko bertsoak kantatzen, bertso bakoitzaren ondoren burumakur esertzen. Saiatzen ginen, bai, baina saiatzek ez zuen emaitzarik ematen. Edo hala uste genuen orduan.

Igaro dira urteak bertso-eskolako lehendabiziko egun horietatik. Oraindik ere, buruko paper zurian idatzitakoa ez da kantatzen dudana izaten. Eta eskerrak. Bertsotan aritzea paper bat etengabe zikindu eta etengabe hutsetik hastea dela ikasi dugu denborarekin: esan nahi duguna esateko oinak falta zaizkigunean, hitzak pilatzen hasten gara buruan, errimak errimaren atzean, errimak errimaren aldamenean, erri-

mak errimaren azpian. Baina, hainbeste erabilitako hitzak esanahia galtzen joaten dira, kolorerik gabe geratzen dira eta berriz ikasitako guztia ahaztu behar izaten da, berriz papera bere zurian hartu eta hutsetik hasi. Berriz bukaera pentsatu, bukaera horretara abiatu eta bidean ohartu ezetz, hitzek ez dutela guk esan nahi duguna esaten; hitzek traizionatu egiten gaituztela, esanahi gehiegi pilatu dituztela batzuek, gu baino zaharragoak direla, eta ez direla inoiz gure mendean jarriko. Inoiz ez dugula esan nahi duguna esango, asko jota hurbildu egingo garela.

Umetan gehien entzundako esaldietako bat zen “saiatuz gero lortuko duzu” ezagun hura. Inork ez zigun esan inoiz ez genuela esan nahi genuena esan nahi genuen bezala esaterik lortuko, beti geratuko zela distantzia bat pentsatu genuenaren eta esaten genuenaren artean. Geroztik bertso-eskolan irakasle izatea egokitu zait; ikasleei ikusi diet lehenengo bertsoa bota ondoren neukan begirada lotsatu hura. Eta oraindik ez dakit nola esan lasai egoteko, bertso bakoitzaren ondoren izango dutela zerbait falta izanaren sentsazio hori, saiatuz gero ere ez dutela kenduko. Eta eskerrak hala den. Dakiela uste duenak ikasteari uzten baitio.

“Ez bakarrik hezitzaileek eta gurasoek, herriak eta herritarrek ere presente egon behar dute haurren heziketan: herriko poetek, artisauek eta abarrek. Haurren heziketak zuhaitz bat izan behar du, herriko kulturen eta tradizioan sustraitua”

Rafael Cristobal

**XXII.
JARDUNALDI
PEDAGOGIKOAK**

HOBEEK IZATEKO HABEAK

**IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA PROZESUAREN
BERRIKUNTZA AUKERAK AZTERTZEN**

**2015EKO MARTXOAREN 11 ETA 12AN
GOIURI JAUREGIA - VILLA SUSO
GASTEIZ**

II. Herri hezitzailea, eskola herritarra

jardunaldiak



FINLANDIAko hezkuntza eredugarria ezagutzen



Apirilaren
24an eta 25ean
Donostiako
KURSAALen

Duela bi urte Francesco Tonucci pedagogo eta "Haurren hiria" egitasmoaren sortzailearekin hasitako bidetari jarraipena emateko, oraingoan, ikasle guztiak kontuan hartzen dituen Finlandiako, Kataluniako eta Euskal Herriko hainbat esperientzia ezagutuko ditugu. Antolaketan, hezkuntza, aisialdia, euskara eta kulturako 12 eragile izan ditu bidelagun Hik Hasi.



Nori zuzendua: irakasleei, hezitzaileei, Udaletako zinegotzietan eta teknikarrietan (parte-hartzea, berdintasuna, euskara, gazteria, aniztasuna, kultura, lurralde antolamendua...), gurasoei, eta heziketan interesa duen edonori zuzendutako jardunaldiak dira.



Apirilaren 24an:

Heziketa ardatz duen HERRIA

- Finlandiako hezkuntza. Leo Pakhin.
- Hezkuntzaren garrantzia. Koldo Saratxaga.
- Herri-hezitzaileen sarea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gaztematika.
- Euskal Herriko hainbat esperientzia.

Apirilaren 25ean:

Herrira begiratzen duen ESKOLA

- Finlandiako eskolen parte-hartzea. Haurra nola hartzen duten bere osotasunean.
- El Martinet, Kataluniako eskola berritzailea auzokideekin elkarlanean.
- Harremonak, EHko hainbat esperientzia...

Informazioa eta izena ematea: www.hikhasi.eus helbidean